

AIARALDEA *hemen*



DANIELA HRISTOVA *DIDI*:
“Bizitzako zorigaitz guztiak komedia bilakatzeari ekin nion, horrek salbatu ninduen” 22-23 or.

MAITE MUGURUZA:
“Rubialesen musuak balio izan du azaleratzeko federazioan zegoen zabor guztia” 24-25 or.



Tokiko merkataritza bidegurutzean

IZAN AMURRIO - APILL

ENKARKI
ALQUILAMOS SOLUCIONES VENDEMOS SERVICIO

Anova makina guztietan
%5eko **DESKONTUA**

Motoaitzurak, inausketa tresnak, hidrogarbigailuak, motozerrak, belarra mozteko makinak (robotak barne) eta askoz tresna gehiago!

ANOVATL
forest & garden products



Arza II industrialdea, LAUDIO · 946 43 00 42 · enkarki@enkarki.net
www.enkarki.net · f @enkarki

Laudioko XIV.
PINTXO LEHIAKETA

Maiatzak 10, 11, 12 | 17, 18, 19

Kategoriak:

- Pintxo librea
- Barrarik hoberena



Dastatu Laudio
www.laudiocomercial.com/eu/pintxos



erreportajea

“Ezin diogu auzokideari leporatu gertatzen ari dena, inola ere ez. Baina guztioi dagokigu arduraz jokatzeari”



SELENE DIAZ ETA IÑAKI VIVANCO AMURRIO ETA LAUDIOKO MERKATARI ETA OSTALARIEN ELKARTEETAKO KIDEAK DIRA. TOKIKO-KOMERTZIOAREN EGOERAZ ETA ERRONKEZ HAUSNARTU DUTE.



Testua eta argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte**

Datuei erreparatuta komertzio galerarik egon da azken urte hauetan eskualdean?

Iñaki Vivanco: Guk esku artean ditugun datuei erreparatuta, bai, argi eta garbi. Oso adierazgarria den aldagaia dentsitate komertziala da. Dentsitate komertzialak erakusten du zenbat biztanle dauden inguruan zabalduko komertzioekiko. Hemen oso argi ikusten da datuak behera egin duela. Laudion, gainera, nabarmen egin du behera dentsitate komertzialak Amurriorekin alderatuz gero. 2018an handiagoa zen dentsitate komertziala gure udalerrian, orain datu hori aldatu egin da.

Aldagai horren atzean komertzioen zifra errealeak daude: 2018tik gaurdaino 46 komertzio gutxiago daude Laudion, eta hamar komertzio gutxiago Amurrion. Datua ikaragarria da!

Gaian sartuta; nola interpretatzen duzue zuek komertzioak azken urte hauetan izan duen bilakaera?

Selene Diaz: Komertzio batek itxi egiten badu, ez da berriro zabaltzen, hori da gaur egun dugun arazorik argiena. Lehen askoz agerikoagoa zen erreleboa zegoela, orain ez dago. Komertzio berdina ez bazen ere, jendeak berria zabaltzen zuen aurrekoak utzitako lekua betetzeko. Ez dakit garai batean erraztasun handiagoa egongo zen, baina gaur-gaurkoz komertzio batek pertsiana jaisten duenean, behin betiko galtzen da.

I.V.: Ez dago belaunaldi aldaketarik. Nire burua ikusten dut, eta seme-alabei funtzionario izateko presta daitezela esaten diet. Eurak dira gure egoera zein den ikusten duten lehenengoak, eta ez dute merkataritzan lanean jarraitzeko inolako asmorik. Nolatan egongo dira astelehenetik igandera lanean?

Belaunaldi aldaketa izan daiteke gaur egungo egoeraren sintoma nagusia?

I.V.: Erpin asko dituen diagnostikoa da: Erosketa ohituren aldaketa egon da, meteorologiaren aldaketak ere hankaz-gora jarri ditu arropak erosteko ohiturak, doako garraio-publiko zerbitzuak kontsumitzaileak Bilbora mugiarazten ditu...

S.D.: Azken urtean hori izan da gehien kaltetu gaituen kontuetako bat.

Aztertu ditzagun arazoak banan-banan. Doako tren-zerbi-

tzuak kaltea eragin dizuela diozue, zergatik?

I.V.: Jendeak Bilbora jaisteko ohitura hartu du. Kafe bat har dezakeen modu berdinean erakusleho batek erakarri dezake, hor badago herrian egingo ez duen erosketa bat.

S.D.: Bada bizi dugun oztopoetako bat. Bilbora doazen herritarrek ez dute soilik erakusleho erakarrietara jotzen, oinarrizko produktuak ere bertan erosteko ohitura nagusitzen ari da. Bada barazkiak Bilboko osteratxo horietan erosten duenik ere.

I.V.: Abandoko tren geltokian bertan dago supermerkatu bat. Hura ikusi eta bertan sartzeko joera du jendeak. Guk merkataritza bezala analisi bat egin beharko dugu horren aurrean, baina erosleoi ere dagokigu analisia egitea; zer nolako azpiegiturak nahi ditugu herrian?

Azken bost urteetan 46 komertzio itxi dute Laudion eta 10 komertzio Amurrion; merkataritza lokalen %21 eta %8, hurrenez hurren

Ardura konpartitua da beraz.

I.V.: Ezin diogu auzokideari leporatu gertatzen ari dena, inolaz ere ez. Baina guztioi dagokigu arduraz jokatzeari. Denon artean erabaki beharko dugu etorkizun hurbil batean zer nolako merkataritza eta ostalaritza nahi ditugun gure herrietan, zer nolako zerbitzuak. Auzokide bezala kirol-azpiegiturak, kultura esparruak... nahi ditugu. Auzokide bezala merkataritza bizia ere nahi dut nik. Merkataritzak bizia ematen die kaleei, argitasu-

erreportajea

na... eta batez ere enplegua. Izan ere, lanpostu asko daude eskualdean merkataritzari lotuak, gehienak lanpostu finkoak, ziurtasuna ematen dutenak.

Merkataritzaren egungo egoera bultzatu duten faktoreekin jarraituz; izan al zen COVID-19aren pandemia inflexio puntua?

I.V.: Pandemiak erosketa ohituren aldaketa suposatu zuen. Pandemiaren herri guztia atera zen kalera tokiko-komertzioa defendatu nahi zuela esanez, baina salbuespen neurriak altxatu zituzten lehenengo egunean, guztiz ahaztuta geratu zen kontu hori.

Tendentziak aldatu egin dira pandemiaren geroztik, eta merkataritzak ez bezala, ostalaritzak lortu du goranzko joera apal bati eustea. Ohitura aldaketa nabarmena egon da kontsumitzaileen artean, gehiago ateratzen gara tabernetara. Jatetxeen kasuan, aldiz, lehen aipatutakoa gertatu da: gehiago jotzen dugu hiri handietako jatetxeetara eta tokiko eskaintzak behera egin du.



Selene Diaz Gabiña

Izan Amurrio

“Elkarteetan etengabe ari gara aurrera egin nahian, ikastaroak eginez errealitate berrira egokitzeko, baina gero ez dugu feedback-ik jasotzen”

Zer egin daiteke merkataritza elkarteetatik egoera iraultzeko?

I.V.: Nik uste lanean gaudela honezkero. Elkarteetako teknikariak buru-belarri ari dira lanean komertzioa dinamizatzeko eta merkataria ahalduntzeko. Hori da komertziook egin dezakegun gauza bakarra, datorrenari eutsi eta egoera berrira egokitzen ikasi, salmenta fisikoa zein Internet bidezkoa uztartuz, esaterako.

S.D.: Nik nabaritzen dut elkarteetan etengabe ari garela aurrera egin nahian, ikastaroak eginez errealitate berrira egokitzeko, baina gero ez dugu feedback-ik jasotzen bezeroarengandik; egingako lanak ez dituela benetan beharko lituzkeen emaitzak jasotzen.

Zer zaudete lantzen bereziki formazio horietan?

S.D.: Nagusiki errealitatera ohi-tzeko tresnak lantzen ditugu. Jendeak geroz eta gehiago jotzen du Internet bidezko erosketetara, gu ere zerbitzu hori eskaintzen ahalgintzen gara. Lehen aipatu dugun



Iñaki Vivanco Ibañez

APILL

“Erosketa ohituren aldaketa egon da, doako garraio-publiko zerbitzuak kontsumitzaileak Bilbora mugiarazten ditu...”

belaunaldi aldaketa faltarekin lotuta, eskualdeko merkataria gehienak pertsona nagusiak dira, teknologiarekin ez oso ohituak. Izugarriko ahalegina ari gara egiten denok, bezeroen beharrezanetara ohi-tzeko. Modu berean sentitzen dut herritarrak ez direla egiten ari garen ahalegin erraldoiaren jakitun.

I.V.: Bestelako formakuntzak ere eskaintzen ari gara elkarteetatik: erakusleihoak nola atondu, enpresa bat nola kudeatu...

S.D.: Formakuntza saio hauek guztiek izugarriko harrera daukate merkatarien artean. Askok ematen dute izena, eta orokorrean badago egoerari aurre egiteko nahi handia.

Ala eta guztiz ere, bezeroen erantzuna ez dator bat merkatarien ahaleginarekin, zergatik?

S.D.: Nik uste ezjakintasuna dela arrazoi nagusia. Ohituak gaude pentsatzera Internet bidez egingako klik bakarrarekin hurrengo egunean bertan jasotzera nahi dugun hori. Ziur etxe azpiko den-



erreportajea

dara jaitsiz gero ere, egun batetik bestera lortu dezakezula nahi duzun hori, baina ez dugu urrats hori ematen. Uste dugu tokiko-komertzioa fisikoa dela soilik, eta azken errekurtsu bezala jotzen dugu bertara. Errealitatea oso bestelakoa da; komertzio gehienek web-orri propioa daukate, eta produktuak askoz eskuragarriago dituzte.

I.V.: Sentsibilizazio asko galdu da ere. Lehen auzokideok herriko zati inportantetzat genituen komertzioak, orain ez da horrela. Uneoro ari gara sentsibilizazio kanpainak egiten, baina ez gara iristen nahi dugun tokira.


“Ez dut uste tokiko-merkataritza desagertuko denik, baina ezinbestekoa da denok batera hori defendatzea. Gaurdanik ez badugu ezer egiten, bihar beranduegi izango da”



Administrazio publikotik behar beste neurri eta baliabide iristen direla uste duzue?

I.V.: Instituzioen laguntzaren mende gaude askotan, baina erakundeei ere sentsibilizazio handia falta zaie. Aiaraldean daukagun industriak ere eragin zuzena dauka komertzioan. Eguneroko dago ahulago. Administrazioetatik ez badira beste mota bateko jardura-industrialak erakartzeko gai, oso gordin daukagu. Bertoko fabrikek geroz eta langile gutxiago dituzte, eta, horren ondorioz, geroz eta auzokide gutxiago gara. Komertzioen gainbehera dator biztanleen beherakadarekin.

Industria teknologikoaren aldeko apustua egin beharko luke Diputazioak. Industria badago, komertzioa dago.



S.D.: Nire iritziz Udalak duen gabezia da, bertako ordezkariak ere ez dutela herrian erosten. Guk asko presionatzen dugu tokiko-merkataritza babesteko kanpainak eskatuz, eta urtean bakarra egiten dute. Nik benetan nahi dudana da, ordea, herrian erostea eta tokiko-merkataritza balioan jartzea.

Zer onura du merkataritza elkarte bateko kide izateak?

I.V.: Elkarteak, batasunak, indarra ematen du. Herrietako merkataritza dinamizatzeaz arduratzen gara, aktibitatea sortzen dugu.

S.D.: Egiten ditugun ekimen guztiak herriarentzako dira. Kanpainak gauzatzeko jasotzen dugun

“Elkarteak, batasunak, indarra ematen du. Herrietako merkataritza dinamizatzeaz arduratzen gara, aktibitatea sortzen dugu”

diru-publikotik zentimo bat ere ez doa komertzioetara, baizik herrian giroa eta sentsibilizazioa sortzera.

Nik uste elkartearen egoteak babes handia ematen duela. Interes berdina duten norbanakoz osatutako talde baten parte izatea da, norabide berdinean lanean ari direnak. Edozein zalantza argitzeko tekniko bat eskura izatea ere bada, erraztasun handia ematen digu komertzioei.

Badira ere APILL eta Izan Amurrio bezalako elkarteetatik kanpo dauden komertzioak. Zer nolako egoeran aurkitzen dira horiek?

I.V.: Guk alde bateko zein besteko komertzioa sustatzeko egiten dugu lan. Eskualdean geroz eta gehiago dira kanpotik etorritako frankiziak. Ohikoan frankizia horiek ez dira elkarteetara batzen. Kontrara, egiten ditugun dinamikak eta sentsibilizazio kanpainak haien onurarako dira. APILLEk zein Izan Amurriok udalherrietako merkataritza eta ostalarien kopuru murrizta batzen dugu, %50 baino zertxobait gutxiago. Elkarteak kide izateak kostua dauka, baina guk elkartetik egiten dugun lana ere onuragarria da elkartearen ize- na- emanda ez daudenentzat ere. Udalek ekarpena egin beharko lukete elkartearen komertzio eta



Aiaraldeko saltoki kopuruak behera egin du azken urteetan

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Laudion zein Amurrión merkataritza eta ostalarien %50 baino zertxobait gutxiago ordezkatzaren dute APILLek eta Izan Amurrión, hurrenez hurren. Aiaraldeko udalerri nagusiak izanik, komertzio masa handia biltzen dute, baina hauek ez dira eskualdeko merkataritza interesak defendatzen dituzten elkarte bakarrak; Artziniegan eta Urduñan, esaterako badiara ere herriko komertzioa dinamizatzeaz arduratzen diren elkarteak. Gainera, Kuadrilla edota Lurralde Historiko mailako elkar-

te handiagotzatzen dira ere. Aiarako kuadrillako elkarteek, esaterako, AEKOn dute koordinazio mahaia.

Eduardo Villanueva da Artziniegako elkartearen lehendakaria; udalerriko establezimendu maila nabarmen txikiagoa den arren, berak ere nabari du tokiko-merkataritzaren une apala: "Artziniegan agerikoa da belaunaldi arrakala bat dagoela; eta egungo saltoki asko desagertu egingo dira jabeek erretiroa hartzean; ez dator inor atzetik".

Villanuevak joera aldaketa igarri du re bezeroen erosketan ohi-turetan: "Komertzio digitalak min


“Komertzio digitalak min asko egin digu, Amazoneko asteko egun guztietan banatzen du”

asko egin digu, Amazoneko asteko egun guztietan banatzen du. Erosketa oinarritzaren ere geroz eta gutxiago egiten dira herrian". Joera horren adierazle izan daiteke herriko bi arrandegiak desagertu izana.

70 komertzio gutxiago

2018tik hona 70 saltokikitxi dute pertsona Aiaraldean. Dentsitate komertzialak saltokien beheranzko joera argia erakusten du. Laudion 11,9 ziren 2018. urtean 1.000 biztanleko zabalik zeuden komertzioak. Gaur egun, ordea, 1.000 biztanleko 9,6 komertzio daude, 46 saltoki gutxiago orotara.

Komertzioaren bilakaera Aiaraldean



Amurrión
-10
komertzio



Aiaraldean
2018tik

70+
komertzio
itxi dira

Laudion
-46
komertzio

Artziniegan
-3

Urduñan
-11
komertzio

Iturria: Aiaraldeko merkataritza elkarteak

ostalarien %100 biltzeko; hala nola kuota gastuak kubrituz.

Nola ikusten duzue tokiko-merkataritzaren etorkizuna?

I.V.: Gure lana da etorkizun baikorra irudikatzea. Horrela imajinatu behar dugu, horretarako ari gara lanean eta. Herritarrekin elkarlanean eraiki behar dugu etorkizuna, bata eta besteak nahi duena izango baita eraikiko duguna.

S.D.: Ez dut uste tokiko-merkataritza desagertuko denik, baina ezinbestekoa da denok batera hori defendatzea. Gaurdanik ez badugu ezer egiten, bihar beranduegi izango da.

herriz herri

Okondo

Okondoko Udalak 882.000 euro jasoko ditu Arabako Foru Planari esker

Testua
Aitor Aspuru Saez

Okondoko Udalak jakinarazi du 882.000 euro jasoko dituela premiazko zenbait lan egikaritzeko, Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bi-

tartez. Zehazki, 289.000 euro baliatuko dituzte herriko hainbat autotan argiteria publikoaren sare orokorra jartzeko eta zabaltzeko, 513.000 euro Laburu landa-bidea egokitzeko eta konpontzeko, eta 80.000 euro udal erretiratuen zentroa birgaitzeko.

Jon Escuza alkateak oso modu positiboan baloratu du jasoko duten ekarpen ekonomikoa, baina ez dio uko egingo bestelako dirulaguntzak jasotzeari. Horiek aztertu ez ezik, proiektuen erredakzioari ere ekingo diote hurrengo hilabeteetan, obrak gauzatzeko.



XLVI AIARA SAN ISIDRO

Maiatzak 15, asteazkena, Arespalditzan

**Pirenaika arrazako behi azienda
hautatuen VIII.lehiaketa**
Lehen sektoreko azoka
Abereak · Haurrentzako tailerrak
Landa eremuko emakumeen erakusketa
Herri kirolak... eta askoz gehiago!



Aiara

Erretes Lantenoko Jaien antolatzaileek ez dute ospakizunik egingo aurten

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Aurten ez dira egongo Erretes Lantenoko ohiko jaiak. Horrela adierazi dute antolatzaileek, zeinek azaldu duten erabakia hartu behar izan dutela beste herritarrek jarritako oztopoengatik eta zailtasun administratiboengatik. Aiararrek erantsi dute baldintza horiek soilik euren exijitzen zaizkiela, eta horregatik amore eman dutela.

Halaber, Erretes Lantenoko Jai Batzordeak aldarrikatu du 2007tik ospakizun arrakastatsuak prestatu dituela hamazazpi ediziotan -gogoratu beharra dago tartean pandemia ere egon zela.

"Atzean geratu dira poztasun ugari. Batzordeak egingadako lan handia eta gazteen

ilusio puskatuak. Horrela jarraitzea merezi ez dutela pentsatzen dute gazteek eta Peregaña Igoera ere bertan behera geratu da", zabaldu dute. Edonola ere, batzordeko kideek eskerrak eman dizkiete antolakuntzan lagundu dutenei, jaietan parte hartu eta gozatu dutenei eta, nola ez, herria bisitatu dutenei.

Parrillada jendetsua

Erretes Lantenoko Jaiak hitzordu berezia bilakatu dira azken urteotan, eta Administrazio Batzarra ospakizunen ibilbidean txertatu da, jende ororentzako ekintzak antolatzen baitzituen. Berezi ospetsua zen ehunka lagunentzako parrillada, baina baita gastronomia txapelketa, erromeria, umeentzako ikuskizunak...

Maroñoko urtegiko bazterrak egokitzeko lanak amaitu dituzte

Testua
Aitor Aspuru Saez

Bukatu dituzte Maroñoko urtegiaren ur-bazterreko ingurunea egokitzeko eta lehengoratzeko obrak, Arabako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren eskutik.

Alde batetik, hondakinak eta isurketak kendu dituzte urtegiaren hegoaldean, eta saneamendu tratamendua egin dute. Horretarako, ur-bazterrak egokitu eta lehengoratu dira, gainazal osoa garbituz, inausiz eta sastrakak kenduz. Gainera, ur-bazterreko landaredia eta bertako zuhaixkak lehengoratu eta sartu dira, ur ertzetako zerrendetako iragazki berde izan daitezten. Babes itxitura perimetral batek osatu du esku hartzea. Bestalde, begiratokiko obrekin lurzorua saneatu dute,

behaketa puntua eraginkorragoa izan dadin. Oinezkoentzako bidean, bide zorua zaharberritu eta baranda eta pasabidea jarri dituzte. Bidezidorraren inguruan, bestalde, garbiketeta eta sastrakak kentzeko lanak egikaritu dituzte, bai eta Letobarri parkeko landareztatutako inguruneari jarraipena eman ere, bertako espezieen landaketeekin. Egindako esku hartzearen helburua da ingurune horren guztiaren paisaia baldintzak hobetzea.

Aiaraldeko Berehalako Jardueta Planaren parte dira bi ekintza horiek, A8 proiektu eragilearen esparruan (Ingurumena eta mugikortasun jasangarria), eta Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak finantzatzen dituzte, lankidetzaren hitzarmena sinatu baitzuten 2022. urtearen amaieran.

Aiara

Aiarako Jaietan egin diren ekintza gehienak izan dira euskara hutsez, Udalak eginiko zenbaketaren arabera



Apirilaren 26tik 27ra luzatu ziren Aiarako Jaiek. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bñares

Aiarako San Prudentzio jaietan eginiko jardueren %54,5 izan da euskara hutsez. Hori on-dorioztatu daiteke Udalak berak eginiko zenbaketa ikusita. Tokiko erakundeak bat egin du Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren Euskararen Semaforoa tresnarekin, eta egitasmo horren irizpideen arabera sailkatu ditu egitarauko jarduerak.

Hamaika ekintza zenbatu ditu Udalak guztira. Horietako sei izan dira "euskara hutsez", hiru izan dira "nagusiki euskaraz" eta bakarra (Kaos Etilikoren kontzertua) sailkatu dute gaztele-razko jarduera moduan, "baina euskaraz egiteko aukerarekin".

Hala ere, kontuan hartu behar da egitarauak 26 ekintza barnebildu dituela guztira. Hau da, Udalak erdia baino gutxiago sailkatu du hizkuntza irizpi-

Udalak bat egin du Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak abian jarritako Euskararen Semaforoa tresnarekin, eta horren arabera sailkatu ditu jaietako ekintzak

deen arabera, zaila delako ebaztea jardueretako askotako hizkuntza zein izango den (txupinazoa edota odoloste-janekoa, kasu).

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak bi urte daramatza Aiarako jaietan euskarak duen presentzia aztertzen.

Aiaraldea Komunikabideak datozen herrietako jai guztietako egitarauak aztertuko ditu, euskararen presentzia zenbatekoa den ikusteko. Egitaraua Euskararen Semaforoaren arabera sailkatuta badago, irizpide hori baliatuko da zenbaketa egiteko. Bestela, berea propioa egingo du komunikabideak, jarduera ba-koitzaren ezaugarriak aztertuta.

Eskualdeko udalerrri gehienek egin dute bat jaietan euskararen presentzia sustatzeko Euskalgintza Kontseiluak abian jarritako ekimenarekin. Aiarako Jaiean atarian egin zuten hori iragartzeko ekitaldia.

Artziniega

Correoseko zerbitzuan erretiratu zen langilearen ordezkoren zain daude Artziniegan



Alkateak gutunak bidali dizkie Correoseko arduradunei. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Joseba Vivanco Retes alkateak gutunak bidali dizkie Correoseko arduradunei exijitzeko erretiratu zen langilearen hutsunea behingoz betetzea. Izan ere, udalburuak martxoaren 18an gauza bera egin zuen Amurrioko Correoseko bulegoan eta oraindik ez du erantzunik jaso.

Vivancok gogoratu du zerbitzu hori funtsezkoa dela udalerrian: "Gogoratu behar da erretiroa hartu zuen eta oraindik ordezkatu ez den postari hori izan zela 2022an Araban etxez etxe banaketa gehien egin zituena. Ez gaude kalte txiki baten aurrean. Bere garaian herrian genuen banku-bulego bakarrarekin gertatu zen, eta horren alde borrokatu genuen Artziniega, zerbitzua mantendu zedin. Gauzak hala, ezin dugu onartu Correose-

koa bezalako oinarrizko zerbitzu batek egungo eraginkortasun eta gogobetetze-maila galtzea".

Gauzak horrela, Artziniegako alkateak exijitu dio Correos enpresa publikoari ahalik eta lasterren argitzea egoera, gabezia hori lan gainkarga eragiten ari baita herriko bulegoko langileen artean. Halaber, Vivancok aipatu du borroka horretan sindikatuak ere sartuta daudela eta aurrekariak dituela beste herri batzuetan, hala nola Urizaharran, Zandranan, Bastidan edo Luiaondon.

Azkenik, arazoa konpontzen ez bada, alkateak deia zabalduko du herritarren artean, kezak jar ditzaten Correoseko bulegoan.

Gogoratu beharra dago Artziniegako Correoseko zerbitzuan gertatzen ari dena ez dela salbuespena. Zerbitzu publiko gehiagotan pizten ari dira antzeko kezkak, Renfen zein osasun sisteman kasu.

arrate
gestoria aholkularitza aseguruak

Utzi zure
errenta **23**
profesionalen
eskuetan

Iturralde kalea 2, AMURRIO
945 89 02 06
info@arrategestoria.com
www.arrategestoria.com

Errenta-aitorpenaren plangintza
gurekin egin ezazu.

20 urte baino gehiagoko esperientzia

Aiaraldea

Solaria enpresak egin nahi duen goi-tentsio lineak 603 lursailen desjabetzea ekarriko du Amurrion, Aiaran, Okondon eta Urduñan



Goi-tentsioko linea baten artxibo irudia. Argia.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aiaraldeko Mendiak Bizirik! plataformak salatu du energia azpiegitura berria eraiki nahi dutela eskualdean. Zehazki, apirilaren 22an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak jakinarazi zuen Solaria enpresak eskatu duela baimena goi tentsioko linea eraikitzeke Amurrio, Aiara, Okondo eta Urduñako udalerrietan. Azpiegitura hori lotuta egongo litzateke Solariak eraiki nahi dituen hiru zentral fotovoltaikora —Solaria Zierbena Solar 2, 3 eta 4—. Zehazki, lineak sortutako elektrizitate garraiatuko luke Zierbenatik Zuiako, Erriberabeitiako eta Gasteizko azpiestazioetara. Berez, 603 lursailen desjabe-

tzea ekarriko luke egitasmoak; 2 Urduñan, 254 Amurrio, 241 Aiara eta 106 Okondon. Aiara-ko Udala jadanik hasi da proiektua aztertzen, egitasmo horren ibilbide paraleloan existitzen baita dagoeneko beste goi-tentsioko linea bat eta.

Plataformaren salaketa

Aiaraldeko Mendiak Bizirik! jarri da harremanetan Aiaraldea Komunikabidearekin egitasmoaren berri emateko eta oso kritikoa izan da. Alde batek, salatu du Eusko Legebiltzarreko hauteskunderen hurrengo egunean eman zutela horren berri Eusko Jaurlaritzak utziko zutenek. Horrez gain, plataformak azpimarratu du proiektu hori aurrera ateratzen saiatzen ari direla Energia Berriztagarrien

Sektore Plana lantzen ari den bitartean eta horrelako ekimenak modu argian arautu behar direla: "Ez da posible enpresa bakoitzak egitea nahi duena. Sektore planak aurreikusi beharko luke ere nola garraiatuko duten energia, erokeria da konpainia bakoitzak bere linea eraikitzea".

Erakundeei ardurak eskatu

Plataformak azpimarratu du erakunde publikoak baimentzen ari direla egoera hau eta, ondorioz, herritarrek instituzio horietara (Udalak edo Eusko Jaurlaritza) jo behar dutela azalpen eske. Momentuz, taldeak ez du baztertu alegazioak aurkeztea, baina uste du aiaraldearrak instituzioekin harremanetan jarri behar direla egoera argitzeko.

Emaitza kaskarragoekin hasi du urtea Tubacexek, baina 1.600 milioi eurotan baloratutako eskaerak pilatu ditu



Tubacexeko Saratxoko lantegia, artxibo irudi batean. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Iazko emaitza oparoen segida luzea apur bat okertu du Tubacexek 2024ko lehen hiruhilekoan. 186,5 milioi eurotan baloratutako salmentak egin ditu, eta 4,8 milioi euroko irabaziak lortu ditu, zergak kendu gabe.

Emaitza positiboa izan arren, kontuan hartu behar da multinazionalak askoz emaitza oparagoak lortu zituela aurreko hilabeteetan. Gauzak hala, bere goranzko joera etengabea makaldu du enpresa-taldeak.

Hala ere, etorkizun oparoa

du konpainiak, marka guztiak hautsi baititu pilatutako eskaeren-zorroan. Zehazki, 1.600 milioi eurotan baloratutako eskaerak ditu egiteke. Enpresa-taldeak berak adierazi du proiektu garrantzitsu ugari hurrengo hiruhilekoetan egin eta fakturatuko dituela.

Gauzak hala, "aurreikuspen onak" ditu Tubacexek 2024rako, hiruhilekoetako emaitzak "progresiboki hobetzen" joango direla uste baitu. Horri lotuta, enpresak ziurtatu du bere unitate guztiek dituztela joera positiboak "epe luze" begira.

DOAKO ETXEZ ETXeko ZERBITZUA: URDUÑA, AIARA, AMURRIO...

Okm produktuak · Garaiko frutak eta barazkiak
Egunero Iza okindegiko ogia
Pertsonalizatutako fruten eta barazkien saskiak

945 092 550 · Landako kalea 1, Amurrio · [f](#) [i](#) [@](#) [@fruitadenda_selene](#)

herriz herri

Laudio

Laudioko gazteen eta emakume zientzialarien arteko topaketa egin dute Kasinoan

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Topaketa berezia antolatu zuten Laudioko Udalak eta Elhuyarrek apirilaren 24an Lamuza parkeko Kasinoan, Bizilabe egitasmoaren barruan. 10-14 urte bitarteko hamazortzi gazte ari dira parte hartzen programa horretan, zientziari zein teknologiarik lotutako proiektuak garatzen.

Egiten ari direna aurkeztu eta profesionalekin kontrastatzeko aukera izan zuten nerabeek, bost emakume ikertzaileekin. Dinamika sinplea baliatu zuten apirilaren 24ko topaketan: ikerlariak mahai batetik bestera saltoka arituz ziren, gazte-talde bakoitzak garatutako proiektua ezagutu eta euren esparru profesionalean egiten dutenari buruz mintzatzeko. Modu horretan, helburu hirukoitzak lortu dute Bizilabe ki-

deek: "Gazteek lehen eskutik ezagutu dute zientziaren eta teknologiarren eremuko profesionalen lana, eremu horietako emakumezkoak ikusarazi dira eta gazteek esku artean dituzten proiektuak garatzeko aholkuak jaso dituzte". 2022an jarri zen abian Bizilabe programa Laudioan, gazteentzako eskolaz kanpoko jardueraren moduan, zientzia zein teknologiarikiko interesa aisialdiaren bidez sustatzeko helburuarekin.

Autoglas-Glavista ixteko prozesua berrabiarazi dute, sei hilabeteren ostean



Langileek mobilizatzen jarraitu dute azken hilabeteetan. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Aurrera doa Autoglas-Glavista itxi eta bertako langileak kalera-terako Enplegua Erregulatzeko Espedientearen prozesuak sei hilabete eman ditu geldirik, ELAK salatu duenez. Sindikatuaren arabera, Gasteizko merkataritza arloko epaitegiak hamar eguneko epea eman zien Guardiani eta Parter Capitali Autoglas-Glavistaren salerosketako dokumentazioa entregatzeko. 2023ko urriaren 18an egin zuen hori, baina bi enpresek ez dute eskatutakoa egin apirilera arte, eta horregatik atzeratu da prozesu osoa.

ELAK nabarmendu du Parter Capitek eta Guardianek prozesu judizialean parte hartu behar dutela azkenean, eta gogorazi du epaileak "enpresa taldearen erantzaren zantzua" ikusi zutela Autoglas-Glavistaren erosketaren kasuan.

Guardianek 2020an saldu zion Autoglas-Glavista lantegia Parter

Capital inbertsio funtsari. Langileek behin baino gehiagotan salatu dute Parter Capital "funts-putre" bat dela, eta hartzekodunen lehaketara eraman duela Laudioko haitzetako fabrika, 240 langileren enplegua arriskuan jarritz.

Beharginen ustez, Guardian da "errudun nagusia" afera honetan guztian. Izan ere, hainbat kontu daude argitzeke multinazionalak eginiko jokalditik. Besteak beste, zahazteke dago zenbat diruren truke eta zer baldintzatan saldu zion enpresa Parter Capitali. Izan ere, ELA sindikatuak duen susmoa da Guardianek dirua eman ziola Parter Capitali Autoglas-Glavistarekin geratzeko. Hala azaldu zuen sindikatuko abokatuak Aiaraldea Komunikabidean izandako elkarrizketan.

Sindikatuak espero du kontu horiek guztiak argitzea epaiketan eta, modu horretan, Guardianek beregain hartzea enpresaren itxieraren eta langileen kaleratzeen gaineko ardura (kalte-ordainak emanez, besteak beste).

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEAK AIARALDEAN

Topaketa

Eskualdeko ekimenen aurkezpenak · Mahaingurua · Talde-dinamikak

MAIATZAK 11, ZAPATUA.
10:00 ETATIK 13:00 ETARA FAKTORIAN.

Energiaren auzia gero eta determinanteagoa den garai hauetan, herritarren burujabetza, antolaketa eta ahalduzko lanabes ezin eraginkorragoa dira energia berriztagarrien komunitateak.

Aiaraldea Ekintzen Faktoria, Goiener Kooperatibarekin batera, Aiaraldean sortzen ari diren eta sortu nahi diren energia berriztagarrien komunitateentzako topaketa eguna antolatu dugu maiatzaren 11an, zapatua.

Gure lurraldearen burujabetzaren eta autoeraketaren bidean gako den energiaren sorkuntza eta kudeaketa izango ditugu hizpide topaketa honetan, elkarrengandik ikasi, hausnartu eta laguntzeko, Aiaraldeko energia komunitate askotarikoa ipar dugula.

Antolatzaileak: Aiaraldea Ekintzen Faktoria eta Goiener



Laudio

Imegarreko greba eten dute, negoziatzen hasi direlako zuzendaritzarekin



Imegarreko langileak, Laudioko Herriko plazan eginiko agerraldi batean. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Bertan behera utzi dituzte Imegarreko greba mugagabea eta mobilizazioak, "negoziatioak ahalbidetzeko". LAB sindikatuak jakinaraz duenez, gaur izan dute lehen bilera zuzendaritzarekin, eta horren ostean erabaki dute orain arteko lanuzte jarraitua etetea.

Hala ere, nabarmendu dute erabakia behin-behinekoa dela: "Fase honetan ez bada adostasunik lortzen, langileekin batera erabakiko dugu zelan artikulatu erantzuna eta mobilizazioak berriz ere hastea".

Sindikatuak kideek eskerrak eman dizkiete azken asteetan "langileekin batera" egon diren herritar guztiei, "negoziatzeko aukera irekitzen laguntzeagatik". Apirilaren 17an abiatu zu-

"Fase honetan ez bada adostasunik lortzen, langileekin batera erabakiko dugu zelan artikulatu erantzuna eta mobilizazioak berriz ere hastea"

ten greba mugagabea Imegarreko langileek, zuzendaritzak kaleratutako bi lankideren berroartzea exijitzeko.

Orduetik hona gobehera ugari izan ditu borrokak. Lan ikuskaritza enpresara bertaratu zen eta behargin bat topatu zuen grebalari baten lanpostua betetzen, LABek salatu zuenez. Horrez gain, langileak "mehatxatu eta iraintzea" eta herritar bat "akusazio faltsupean salatzea" ere leporatu zioten enpresari, Laudioko Herriko plazan eginiko agerraldian. Dena den, elkartzun keinu ugari ere jaso dituzte beharginek azken asteetan. Tubos Reunidoseko, Madres Mercedariaseko, JEZeko, Laudioko Udaleko edota Berriak BMko beharginen babesa jaso dute, besteak beste, eta baita pentsiodunena edota tokiko zenbait ekoizlerena ere.

Amiantoa topatu dute Granja kiroldegiko igerilekuko aldagelea komunetan

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Laudioko Udalak jakinarazi du amiantozko zuntzak dituen fibrozementua topatu dutela Granja kiroldegiko igerilekuko aldagelea eta komunetan. Apirilaren 24an piztu ziren alarma guztiak gizonen aldagelan fibrozementua topatu ostean. Aldagelea berehala itxi zuten eta Udalak enpresa espezializatu bati agindu zion instalazio guztiak ikuskatzeko. Jardun horretan ari zirela, igerilekuko emakumeen aldagelan ere topatu zituzten amianto zuntzak,

eta espazio hori ere berehala itxi zuten. Udalak Osalani eta Osasunerako Euskal Erakundeari bidali dizkio jakinarazpenak eta ikuskaritza lan gehiago egingo dituzte datozen egunetan.

Aldagelea komunak itxita

Garbiketa-lanak amaitu eta instalazioen osasun-segurtasuna ziurtatu bitartean, itxita jarraituko dute igerilekuetako emakume zein gizonen aldagelea komunak. Halaber, erabilgarri daude kirol azpiegiturak eta kiroldegiko gainerako norbanako aldagelek zein aldagelea komunak.

OROZKO
Maiatzak 25 10:00etan

Bizkaiko
I. azpigorri txapelketa

Euskal Herriko
arraza
autoktonoen
erakusketa



Antolatzaileak:



argazki erreportajea

San Jose, Aiara, Urduña, Gardea... Udaberriarekin batera abiatu da Aiaraldeko herri eta auzoetako jaien maratonia. Udazkenara arte jai-batzorde desberdinek helduko diote festen antolakuntzaren lekukoari. Aiaraldea Komunikabideko kideak ere bertan izango gara, une horiek guztiak jasotzen.



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Udaberriko jaiak hasiera eman diote udazkenara arte luzatuko den festa maratoiari. San Prudentzioko danborren erritmoan Aiaran eta Amurrioko San Jose auzoan dastatu dute estreinakoz udako festa-zapore amaigabea.

Aiara Dantza Taldea arduratu

zen San Prudentzio jaiak hasiera emateaz, eta San Jose auzoak segituan hartu zien lekukoa aiararrei. Egun gutxiko atsedendiarren ostean Urduñan egin zuen eztanda festak; bertan ere hamar-kada luzeko ibilbidea ospatzen ari den talde baten eskutik: Txarlazo Mendi Taldea.

Aiaraldeko hirira bertaratzen direnek oraindik ere aurkituko

dute zer gozatu, igandera arte ez dituzte agurtuko Otxomaio jaiak.

Behin martxa hartuta, jarraian iritsiko da Aiarako herrietako, Amurrioko, Laudioko, Arrankudiagako, Artziniegako edota Orozkokoen txanda.

Argazkiak: Aimar Gutierrez, Naia Vallejo, Txabi Alvarado, Chris Gomez eta Aitor Aspuru



argazki erreportajea



argazki erreportajea



argazki erreportajea



QUICK PC REPAIR
Informatika argi eta erraz



ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA
gainkosturik gabe

- Salmenta · Konponketak
- Informatika-ekipamenduen eta STen inguruko prestakuntza ematen dugu negozio eta etxeetarako
- Bezeroaren premietara egokitutako fakturen eta tikieta diseinua, eta kudeaketa-programen diseinua

Galdetu PC eta ordenagailu eramangarrien **REMOVE PLANA**ri buruz

Dionisio Aldama 2, AMURRIO · 685 70 19 56 · 945 03 48 12
www.quickpcrepair.es · quickpcrepair@quickpcrepair.es

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO

Mediku zentroa RPS: 314/18
Karmen Kalea 13, behea
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00
www.yandioladental.com

75 urte zurekin



PADI PROGRAMA



INPLANTEAK



3D ERRADIOGRAFIAK



Hamahiru talde "gazte zein beterano" Orozko Rock jaialdian

Maiatzaren 17 eta 18an ospatuko dute Orozko Rock musika jaialdiaren edizio berria, eta aurtengo hitzordua berritasunez beterik dator. Aldaketa nagusia izango da jaialdia erabat doakoa izango dela. Aurtentzen lehendabiziko zere, bi kontzertu-gune atonduko dituzte: Hegoaldeko zabalgunean bata eta Zubiaur plazan bestea.

Hamahiru musika talde

Alde batetik, Sex Museum eta The Capaces talde beteranoak egongo dira, euren 40 eta 25 urteko ibil-

bideak errepasatzeko, hurrenez hurren. Bermeoko Etxekalte taldeak "post hardcore eta doinu melodikoak" eramango ditu Orozkora, eta Gernikatik Feline gerturatuko da, "jaiari ukitu psikodeliko eta originala" emateko.

Ezezez bilbotarrak eta Toc mungiarrek ere batu ko dira festara, euren estilo "bereko bezain originala". "Grunge ukituak", aldiz, Ginger taldeak jarriko ditu, eta bestelako estiloak entzuteko aukera ere egongo da: The Half Nelsons talde bizkaitarrak "country doinu amerikarrak" jorratuko ditu,

Boogie Riders arrigorriarrek blusa taularatuko dute eta Oñatiko Letagin taldeak "Eskandinaviako soinu gogorrak" eramango ditu jaialdira. Italiako ordezkaritza ere egongo da, Micky Paiano musikariaren Micky & The Buzz taldearekin.

Horrez gain, eskualdeko sortzaileek ere izango dute presentzia Orozko Rocken, oso belaunaldi ezberdinetako bi taldeekin. Alde batetik, BOTH talde gaztea arituko da oholztan eta, bestetik, Lur talde mitikoa, kontzertu bakan batzuk eskaintzeko soilik batzen dena.

MUSIKA

05.08 Asteazkena

21:00 URDUÑA
ORQUESTA LA
RESISTENCIA
Otxomaio Jaialak
Foru Plaza

05.10 Ostirala

20:00 LAUDIO
IGOR ARZUAGA
BANDAREKIN
Faktoria

05.10 Ostirala

23:30 URDUÑA
BERANDUEGI ERROMERIA
ETA DJ KULL
Otxomaio Jaialak
Foru Plaza

05.11 Larumbata

23:30 URDUÑA
ZOPILOTES TXIRRIAOS ETA
DJ VARRO
Otxomaio Jaialak
Foru Plaza

05.17 Ostirala

19:00 OROZKO
THE HALF NELSONS, BOTH,
FELINE, LUR, ETXEKALTE
ETA MICKY&THE BUZZ
Orozko Rock jaialdia
Hegoladeko aparkalekua

05.18 Larumbata

13:30 OROZKO
BOOGIE RIDERS + GARRAFA
DASTAKETA
Orozko Rock jaialdia
Zubiaur Plaza

05.18 Larumbata

19:45 OROZKO
GINGER, THE CAPACES, SEX
MUSEUM, TOC, EZEZEZ ETA
DJ NASH
Orozko Rock jaialdia
Hegoladeko aparkalekua

05.18 Larumbata

20:30 LAUDIO
TXUVASKO ETA
ULTIMATUM
Orbeko Etxea

FAMILIA JARDUERAK

05.09 Osteguna

17:30 LAUDIO
KONTULEKU, IRAKURKETA
KLUBA FAMILIAN
Udal Liburutegia

05.18 Larumbata

12:00 AIARA
FAMILIENTZAKO KANPALDI
LIBREA
Alaratekak antolatuta

HITZALDIAK

05.09 Osteguna

19:00 LAUDIO
HERRI ZIENTZIA: ORKIDEAK
ZAINTEKO UDAL
PROGRAMA GASTEIZEN
Arrañoiko basa orkideak
Jardunaldiak
Kultur Etxea

05.11 Larumbata

10:00 URDUÑA
'ENERGIA BERRITZAGARRIEN
KOMUNITATEAK
AIARALDEAN' TOPAKETA
Faktoria

05.15 Asteazkena

16:30 AMURRIO
COMMONS
Wikipediari buruzko
formakunza saloa
Liburutegia

05.17 Ostirala

19:00 LAUDIO
ARRAÑOIKO ORKIDEETARA
HURBILTZEN PUNK
MUSIKAREN BITARTEZ
Arrañoiko basa jrkideak
jardunaldiak
Kultur Etxea

BESTELAKO JARDUERAK

05.08 Asteazkena

20:00 LAUDIO
ABASTO PLAZAKO OBREI
BURUZKO BILERA IREKIA
Erabilera anitzeko aretoa

05.09 Osteguna

10:30 URDUÑA
ARRASTARIAKO AGINTARIEN
ERRMESALDIA
Otxomaio Jaialak
Antzinako Andra Mari

05.10 Ostirala

20:00 URDUÑA
KALEJIRA SAKATU
ELEKTROTXRANGAREKIN
ETA KUADRILLEN AFARIA
Otxomaio Jaialak
Foru Plaza

05.11 Larumbata

18:30 URDUÑA
VI. AURRESKU ETA
FANDANGO LEHIAKETA
Otxomaio Jaialak
Gernika Plaza

05.12 Igandea

12:00 AIARA
AMETSEN HARIZTIKO
MARGOLARIEI OMENALDIA
Arcos de Quejana

05.19 Larumbata

Basa orkideak

Arraño mendian



Arrañoeko basa orkideak izango dituzte aztergai udazkenera arte luzatuko diren jardunaldiak esker. Udaberriarekin batera, maiatzaren 8an emango diote hasiera hitzaldi eta jarduerazikloari. Besteak beste, orkideak kontserbatzeko martxan jarritako porgarama desberdinak emango dituzte ezagutuz zeren bait ibilbide gidatuekin batera. Udazkenean, urrian zehazki, argazki erakusketa inauguratuko dute.

Kampaldi librea

antolatu du Aiarateka Elkarteak Lantenen, Aiarako familientzat



Aiarateka Elkarteak proposamena zabaldu du maiatzaren 18an Lantenenko Antzokia Mari Zuri baselizako zelaitan familia arteko kanpaldia egiteko, gaua barne. Antzokiarekin adierazi dute Aiarako populazio oso sakabanatuta dagoela eta horrela ekimenean bitartez elkartzeko aukera dutela familiek. Zehazki, Aiaratekak proposatuko du jolas kooperatiboak egitea, kamisetak margotzea eta gaubela. "Azken hori da arraskatatsuena", aipatu dutenez. Toki ko-

purua mugatua da, inskripzioen ordena jarraituko dute. Izena emateko Internet bidez egin daiteke edo 688 783 667 telefono zenbakira deituta. Maiatzaren 10a izango da horretarako azken eguna.

Elkarteko bazkideek ez dute ezer ordaindu behar. Ez direnek, aldiz, bost euro eman behar dituzte. Atingabeek heldu baten laguntza izan behar dute. Izan ere, ezagutza ez dute umeen artean soilik sustatu nahi, helduen artean ere bultzatu nahi dute.

Kartelera



AMURRIO ANTZOKIA
Siempre nos quedará mañana
MAIATZAK 12, 13
IGANDEA ETA ASTELEHENA
(5 / 3,75 euro)
19:00



AMURRIO ANTZOKIA
Garfield, la película
MAIATZAK 19, 20
IGANDEA ETA ASTELEHENA
(5 / 3,75 euro)
19:00



AMURRIO ANTZOKIA
La casa
MAIATZAK 19, 20
IGANDEA ETA ASTELEHENA
(5 / 3,75 euro)
19:00



LEZEAGA ARETOA
“perfecta” hermana
MAIATZAK 20
ASTELEHENA (Doan)
18:00

Lanteno

KIROL JARDUERAK

05.09 Osteguna
10:00 AMURRIO
TTIPI-TTAPA, IBILALDI
PARTEKATUAK
Juan Urrutia plaza

05.18 Larubata
09:30 OKONDO
AIARALDEKO KIROL
TOPAKETA
Mendi irteera
Okondoko Eskola

05.12 Igandea
13:00 LAUDIO
II. ARGAZKI LEHIAKETAREN
SARI BANAKETA
Gardeako Jaiak
Gardeako Gizarte Etxea

05.12 Igandea
21:00 URDUÑA
BIHOTZAREN ERREKETA ETA
JAIEN AMAIERA
Otxomalo Jaiak
Foru Plaza

INFO +
aiaraldea.eus

Aiaraldeko gertaerak mugikorrean jaso nahi?

HARPIDETU GURE KANALETARA!



Jaso Whatsappean eguneko edukiak,
688 848 152 zenbakira
AIARALDEA GAUR
mezua bidalita!



Batu Telegramera
t.me/aiaraldea
esteka bidez!



INFO+ www.aiaraldea.eus



kultura



“Gustuko dugun musika egiten dugu, ez dugu begiratzen ea estilo hori gaur modan dagoen edo ez?”

LAUDIO, ARRANKUDIAGA-ZOLLO ETA UGAOKO LAU LAGUNEN ARTEAN OSATU DUTE **EZ DOK BAPE** TALDEA. UGAON ESKAINI ZUTEN LEHEN EMANALDIA APIRILEAN, ETA FAKTORIAN ARITUKO DIRA DATORREN EKAINAREN 7AN.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**
Argazkiak **Marti Lucas Feliu**

Ibilbide luzeko musikarien artean osatu duzue Ez Dok Bape taldea. Nolatan batu zineten eta nola sortu zen talde berri bat eratzeko ideia?

Beno, ibilbide luzekoak dira Josu (Danba) eta Gorka (Siroka, Zeinda zein, Feos pero Majos, Neguri Gorriak...). Goio RRVren garaian ibili zen hainbat taldetan, baina denak ibilbide laburrekoak izan ziren, eta Irkusentzat, baxua jotzen aspaldi hasi bazen ere, lehen zuzenekoak izan zen Ugaokoa.

Batu gara, laurok musikariak izateaz gain, batez ere musikazaleak garelako, kontzertu askotara joaten gara eta urrats naturala izan da gu ere oholza gainera igotzea. Taldearen sorrera, bestalde, agian ez zen izan horren "naturala". Izan ere, taldearen ideia Alacanteko espetxerako bisitetan sortu zen Irkus eta Goioren artean, erdi seriotan erdi brometan. Aurrerago, garai hartan Ugaoko Dorretxean tabernari zebilen Itzik bere burua eskaini zuen kantari moduan eta Gorka ekarri zuen taldera.

Orain hilabete batzuk, Josu sartu zen taldera, daukan eskarmentu eta estiloaz taldearen kantak beste dimentsio batera eramanez.

Guztiak zatozte punk eta rock esparrutik. Horrek erraztu du talde berriaren estiloa topatzea? Edo kostatu zaizuen ahots eta estilo berria bilatzea?

Argi dago taldeko lau kideok punketik edaten dugula, bai musikalki bai ideologia aldetik, baina ikuspegi zabalagoa daukagu. Kantu batzuetan, adibidez, perkusio elektronikoa erabiltzen dugu, eta beste batean marakak. Batzuk *punkarragoak* dira, eta beste batzuk rockeroak. Kanturen batekin inkluso dantza egin daiteke! Dena den, uste dugu aniztasun txiki hori nahiko modu homogeneoan eskaintzen dugula, "gurea" izan daitekeen estilo batean.

Punk eta rock talde bat plazaratu duzue, genero horiek beherakada izaten ari diren garaian. Gaur egungo joerek zeozertan baldintzatu dute zuten proiektua?

Ez, ez. Guk egiten dugu gustuko dugun musika, entzuten duguna, mugiarazten gaituena, barrutik zein kanpotik, eta ez dugu begiratzen ea estilo hori gaur modan da-

goen edo ez. Bestetik, eta beherakada aipatu duzunez, rock estiloa, eta bere aldaerak, hainbatetan egon dira kokan musikaren historian zehar, hainbatetan desagertuko zirela iragarri zuten garaiko bisionarioek. Halere, hortxe dirau, bizirik, unean uneko modaren olatuetan igeri, hondoratu barik. Neil Young handiak 1979 urrun hartan kantatzen zuen bezala, *Hey hey, my my, Rock and roll can never die!*. Zorionez, 2024an ere gazte askok jotzen dute rock-and-rolla.

Nondik dator Ez dok bape izena?

Ez Dok Amairu kultur mugimendutik. Alde batetik, omenaldi gisa, oso garrantzitsua izan baitzen 1960ko hamarkada amaieran euskal kultura berpiztu eta, era berean, modernizatzeko. Baina, bestetik, eurek izena, dakizunez, kondaira batetik hartu zuten, ez zegoela hamairurik, baina bai aurreko hamabiak, denak erlijioarekin loturikoak, jainkoarengandik hasi eta hamabi apostuluekin amaituta. Guk, ordea, diogu ez dagoela bat ere, kristautasuneko kontu guztiak ukatzen ditugu.

Anekdotan moduan esan behar dugu Irkusek izen hori lehen aldiz entzun zuela hamabi urte zituenean, Ugaoko Ikastolako maisu Goioren ahotik: Sortuko dudun hurren-

go musika taldeak *Ez Dok Bape* izena izango du'. Eta 30 urte beranduago, taldea sortu da, kar, kar, kar...

Nolako izan da abestien sorrera prozesua?

Kanten ideiak Goioak dakartza lokalera, bai letra eta bai musika. Lokalean denon artean lantzen ditugu, hemen zubi bat jarriz, melodia egokituz, leloa errepikatuz, abiadura aldatuz... eta hortxe sortzen da benetan abestia. Beraz, denon artean egiten ditugula esan dezakegu. Beno, letrak ez, normalean horiek ekarri bezala geratzen dira.

Abesti propioekin igoko zarete taula gainera. Zer arreratu dezakezue zuen kanten inguruan?

Letrak politikoak dira, azken finean bizitza bera ere politikoa dela uste dugulako, hartzen ditugun erabakiak, hartzen ez ditugunak, portaerak... Hori bai, kasu batzuetan mezua argi dago, ez dago bigarren irakurketa-rik, *Amets hautsiak* edo *Maskara erantzita* abestietan bezala. Baina, orokorrean, asmoa da irakurketa irekiago letrak sortzea, abiapuntu bat eman eta hortik entzule bakoitzak bere esperientziatik letra bere egin dezala.

Eta estiloa?

Etiketak jartzea batzuetan zaila da, baina aurreko elkarrizketa batean honela definitu genuen: Punk-rock "ez oso ortodoxoa", reggae kutsu bategaz. Uste dugu baliagarria dela definizio hori.

Baduzue zuen kantak grabatzea pentsatuta?

Bai, Beñat Ramos musikari ugaotarrarekin grabatzeko asmoa dugu, baina ondiño ez dugu data zehaztu, ez baita

“Gure asmoa ez da amaigabeko bira batean hastea edo musikan modu profesionalago batean aritzea”

erraza denon agendak bateratzea. Baina, zaudete lasai, grabatzen dugunean zuek izango duzue horren primizia!

Ugaon eskaini zenuten lehen kontzertua. Nola balo-ratzen duzue orain arte izandako harrera?

Itzela! Gu oso gustora ibili ginen eta, esan digutenez, Dorretxea bete zuen jendea ere bai. Ezin pozago lehen kontzertua izanik. Bestalde, 'etxean' jokatzeko genuen eta horrek, alde batetik, lasaitasuna ematen badizu ere, aldi berean, exijentzia maila igotzen dizu. Apaltasunez, uste dugu maila eman genuela. Errepikatzeko modukoa.

Ekainaren 7an joko duzue Faktorian. Zer topatuko du zuen zuzenokora bertaratzen denak?

Mimo handiz prestatutako ordubete inguruko kontzertu bat, punk-rocketik abiatuta beste genero batzuetara jauzi egiten duen saioa. Eta batez be, ondo pasatzeko aukera bat. Hemen komentatu behar dugu kontzerturako sarrera doakoa dela eta, amaitutakoan, ikusleek baloratu/erabakiko dute zenbat ordaindu. Atzekoz aurrerako sarrera-edo izango da.

Epe ertain eta luzera begira, zeintzuk dira talde moduan dituzuen asmoak?

Epe ertainera, lokalean jarraitzea entseatzen, kanta berriak sortzea eta zuzenekoak eskaintzea. Eta batez be, ondo pasatzea, jakina. Epe luzera, berdina antzera. Adin bat dugu, familia, batzuek adin txikiko seme-alabak... eta, beraz, gure asmoa ez da amaigabeko bira batean hastea edo musikan modu profesionalagoan aritzea. Beraz, esan bezala, kantak sortzen, entseatzen eta zuzenean jotzen arituko gara.



kultura

Aitor Intxaurreaga Zuluagaren 40 urteko ibilbidea, Laudioko Kultur Etxean ikusgai

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Aitor Intxaurreaga Zuluagaren berrogei urteko ibilbidearen antologia bat ikusteko aukera dago Laudioko Kultur Etxean, maiatzaren 15era arte. Ganbarako aretoan jarri dituzte artista orozkoarraren la-

nak, eta bera ere bertan egongo da egun hauetan, bertarutzen direnekin solasteko eta margotzen jarraitzeko. Izan ere, koadroez gain, as-toa, pintzelak eta mihiseak ere eraman ditu margolariak Kultur Etxera, sorkuntza prozesuak etenik izan ez dezan. Orozkoko paisaiak ditu Intxaurreagak inspirazio, bai-

na Frantzian ere egin ditu margolanak, eta horietako batzuk ere ikusi daitezke Laudioko erakusketan.

18 urte zituela hasi zuen ibilbidea margolari moduan, Juan Bayon Salado *Bay Sala* artistaren eskutik. Hala azaldu zuen Intxaurreagak berakotsailean Aiaraldea Komunikabideari eskainitako elkarrizketan.

Alejandro Quincocesena lana ikusgai dago Palacio Realen



Alejandro Quincoces Artziniegako estudioan. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Alejandro Quincocesena zenbait koadro Palacio Realen daude ikusgai. Duela hogeita egun inauguratu zuten erakusketa eta Isabel Quintanilla, Carmen Lafont, Antonio Lopez, Cristobal Toral, Eduardo Naranjo eta beste hainbat margolari errealisten obrak jaso dituzte. Edonola ere, interesgarriena da hara heldu direla Txinan egon ondoren. Izan ere, Pekinen antolatutako Espainiako Estatu-ko errealmoko 105 margolarien obrek. Bi komisario izan ditu proiektuak eta bat Nicholas Penny izan da, National Galleryko zuzendari ohia.

Egitasmoa Espainiako Estatu-ko eta Txinako erakunde publiko eta pribatuen arteko elkarlanaren emaitza izan da. Enbaxadak, Txinako Kultura Ministerioa, Arte Ederretako fakultateak eta Txinako Arte Akademia aritu dira elkarlanean, eta ez da lehen aldia izan.

Berez, Quincoces hiru aldiz egon da jadanik Asiako herrialdean. Duela bederatzita urte hasi zen harremana eta oraindik ere indarrean dago.

Alde batetik, Artziniengan bizi den artistak azpimarratu du Txinako arte merkatua munduko garrantzitsuenen artean dagoela: "Munduko 30 enkante etxe nagusien artean erdia txinatarrak dira, eta munduko 100 margolari inportanteen artean gutxienez 40 dira hangoak".

Quincocesi, gainera, esperientzia oso politak eman dizkio elkarlanak: "Bisita oso interesgarriak egin ditugu eta tratu beti izan da bikaina, bai Arte Ederretako fakultateetan zein erakundeekin. Oso inplikatuak gaude proiektuan eta ikastaroak ematen ditugu ikasleekin. Sinisten dugu kultura txinatarrean eta euren interesa dute margoetan. Txinatarrek konfiantza dute euren kulturaren baina aldi berean oso apalak dira".

Artziniiegako VIII. kontzertu zikloa ate joka

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Maiatzaren 31n hasiko da Mendieta Kultur elkarteak antolatutako VIII. kontzertu zikloa.

Guztira sei proposamen aurkeztu dituzte kartelean: Sergio Gomez, Trihotz, Oñatiko ganbara Abesbatza, Entrebesant, All'antica eta Cuarteto Iberia. Kontzertuak, maiatzaren 31n, ekainaren 2an, ekaina-

ren 14an, ekainaren 22an, ekainaren 28an eta uztailaren 12an izango dira, hurrenez hurren, Mendieta auzoko Santo Tomas elizan.

Hain zuzen ere, eliza hura birgaitzeko ekimenarekin sortu zuten 2014an Mendieta Kultur Elkarteak, eta, ondoren, klasikoaren, zaharraren eta tradizionalaren kontzertu zikloa antolatzeari ekin zioten 2017az geroztik.



MAIATZAK 16, EGUAZTENA
19:00ETAN FAKTORIAN



ALDA TUGIDOIA
EUSKARAREN ALDE

ekimenaren aurkezpen solasaldia
FERMINTXO ZABALA plataformako kidearekin

Maiatzak 18an, 17:30ean, Gasteizen mobilizazioa!

Faktoria babesa eman du jada, eta zuk? Eman online atxikimendua labur.eus/aldatugidoia helbidean sinatuta!

babestutako edukia



MODA BERTIA

FAKTORIAN

MAIATZA



10, barikua
18:00 - Faktorian
ASANBLADA/
FAKTORIAKO IDEIEN ASANBLADA
DOAN
#AMESTEKOFAKTORIA



10, barikua
20:00 - Faktorian
KONTZERTUA/
IGOR ARZUAGA
BAZKIDEAK 5€ / EZ-BAZKIDEAK 7€
#MUSIKA



11, zapatua
10:00-13:00 - Faktorian
JARDUNALDIA/
ENERGIA KOMUNITATEAK AIARALDEAN
DOAN
#ENERGIKOMUNITATEAK



11, zapatua
18:00 - Faktorian
GAZTE GAZTEAK/
NERABEENTZAKO IHES GELA
DOAN
#AISALDIA



12, domeka
11:00-13:00 - Faktorian
KOKORIKO/
0-3 URTEKO HAURENTZAKO JOLAS LIBRERAKO ESPAZIOA
BAZKIDEAK 5€ / EZ-BAZKIDEAK 6€
#JOLASLIBREA #0-3ESPAZIOA



16, eguena
19:00 - Faktorian
AURKEZPENA/
ALDATU GIDOIA EUSKARAREN ALDE
EKIMENAREN AURKEZPEN SOLASALDIA
DOAN
#EUSKARA



17, barikua
20:00 - Faktorian
BERBALDIA/
HABITATUTAKO PABILIOI BAT
BEÑAT SARATXAGA ARKITEKTOAREKIN
DOAN
#ARKITEKTURA



18, zapatua
11:30-13:30 - Faktorian
TAILERRA/
ZAINITZA FAKTORIA
DOAN
#FEMINISMOA #HOBIBORSOLASALDIAK



18, zapatua
16:30etik aurrera - Faktorian
KOKORIKO/
HAURREN EGUNA ETA GAUA
DOAN
#FAMILIAK #JOLASLIBREA #HIZITZAJOLASA



24, barikua
18:00 - Faktorian
AURKEZPEN TERTULIA/
KULTURARTEKO-TASUN FAMILIAK
DOAN
#KULTURARTEKOTASUNA



25, zapatua
FAKTORIAREN URTEURRENA
KONTZERTUA/
ANARI
#HIZITZEKOFAKTORIA #AMESTEKOFAKTORIA



31, barikua
17:00-20:00 - Faktorian
FORMAZIO JARDUNALDIAK/
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEA AIARALDEAN
3º SAIOA
DOAN
#EKONOMIASOZIALERALDATZAILEA

EKAINA



01, zapatua
11:00-14:00 - Faktorian
JARDUNALDIAK/
FEMINISMOA AIARALDEAN
DOAN
#FEMINISMOA



07, barikua
20:00 - Faktorian
KONTZERTUA/
EZ DOK BAPE
BORONDATE TRUKE
#MUSIKA



08, zapatua
10:00 - Faktorian
TAILERRA/
SAGARRA 11 ERATAN
OLATXUKO LABOREAK
BAZKIDEAK 20€ / EZ-BAZKIDEAK 25€
#ELIKADURABURUJABETZA



3. urteak

#METSAK AIRERATUZ

FAKTORIA JAIA

MAIATZAK 18, ZAPATUA
Faktotxiki gaua

16:30 Ludoteka, jolas librea, jumping
18:30 Pizza tailerra
20:00 Afarria
21:00 Gaubela!

Izena ematea beharrezkoa da:
faktoria.eus bidez edo 722 22 75 32 (Aritz) telefonora deituz.

MAIATZAK 25, ZAPATUA
Urteurren jaia

18:30 herriko plazatik, kalejira
20:00 Faktorian, parrillada (doan)
22:00 kontzertua,
ANARI

Sarrerak faktoria.eus-en salgai:
13€ bazkideak // 15€ ez-bazkideak





www.faktoria.eus

+PROGRAMAZIO GEHIAGO!

WEBGUNEAN/SARE SOZIALETAN EKITALDI BERRIEN JARRAIPENA EGITEKO AUKERA DUZU.



kultura

“Dagoen okerrena naiz: kanpokoa, txiroa, nahiko zaharra, bollera, lodia... eta horiek guztiak dira hitz egiteko gai handiak”



DANIELA HRISTOVA DIDI (Bulgaria, 1972) UMOREGILEA DA. HIRU URTE DARAMATZA LAUDION BIZITZEN, BAINA IRAGAN IGANDEAN IGO ZEN ESTREINAKO ALDIZ HERRIKO OHOLTZA BATERA, GARDEAKO JAIETAN.



Testua eta argazkiak **Txabi Alvarado Bañares**

Bulgariako zara jatorriz. Nola amaitu duzu Laudioko Gardea auzoan bizitzen?

Uf [barreak]. Ez dakit, bizitzaren bidea izan da. Hemeretzi urte daramatzat Espainiako Estatuan, eta hamabost Euskal Herrian. Bilbon bizi izan nintzen koronabirus ospetsua iritsi zen arte. Pisua utzi behar izan genuen orduan. Hiriko zurrunbilotik atera nahi genuen, eta etxe bila hasi ginen. Hiru hilabete genituen pisua uzteko, baina ez genuen toki berririk topatzen. Denok daki-gu nola dabilen alokairuen afera guztia...

Pisu bat eskaini ziguten Laudion. Ikustera etorri ginen baina bunker bat zen. Emakume batekin genbiltzan auzoa ikusten. Etxe baten aurrean jarri ginen hitz egiten eta, halako batean, beste emakume bat atera zen bertatik. Galdetu zigun ea alokairuzko etxerik bilatzen genuen, eta guk baietz. Berak esan zigun deitu egin ziotela, bertara joango ginela esanez. Guk ez genekien nork deitu zuen ez ezer, baina etxea bisitatu genuen eta gure tokia zela ikusi genuen. Horrela amaitu nuen Laudion.

Kasualitate hutsez, beraz.
Erabat [barreak].

Asko aldatu da zure bizitza Bulgarian bizi zinenetik hona. Baina bertako bizimodua eta hemengoak, orokorrean, ezberdinak dira berez?

2005aren hasieran atera nintzen Bulgariatik. Urte ugari igaro dira ordutik hona.

Inor ez da toki batetik joaten bertan ondo dagoelako, jende orok bilatzen du beste toki bat ez dagoelako ondo bere sorterrian. Nik arazo pertsonal bat izan dut drogekin, baina, hori albo batera utzita, kontuan hartu behar da Bulgaria dela Europar Batasuneko herrialde drik txiroena. Soldatak igo egin dira orain eta 500 euro ingurukoak izan daitezke. Prezioak hemengoak bezalakoak dira gutxi gorabehera, eta bizitza nabarmen gogorragoa da. Hemen badago ustelkeria, baina bertan askoz ikusgarriagoa da. Ezin duzu ezer lortu mahaiaren azpitik dirua jarri ezean. Ezberdintasun asko daude.

Sistema sozialista edo komunistan igaro nuen nire gaztaroa, alde sobietarrean. Nahiko itxia zen. Nire belaunaldiaren gehiengoaren asmoa zen ingelesa, alemana edota espainiera ikastea, bertatik alde egin ahal izateko.

18 urte nituen Berlineko harre-

sia erori zenean. Institutuan nengoen sistema aldatu zenean. Beno, aldatu... mugak ireki zituztenean, bertatik atera eta koloreak ikusten utzi zigutenean. Bertan genuen bizimodura gehien gerturatzen dena Ipar Korea da gaur egun: kolore bat, zapata batzuk eta dena aberriaren alde. Sistema guztiek dituzte euren gauza on eta txarrak, baina gutxienez badut askatasuna nahi dudana tokian egoteko eta nahi dudana egiteko.

Hona iristean hasi zinen zure sormena garatzen? Edo Bulgarian jada zenuen grina zen?

Hemen garatu nuen, duela ez asko. Bulgariako sistemak zuen alde ona bazen oso hezkuntza ona jasotzen genuela. Ni kirolean hasi nintzen, nire senide guztiak zirelako kirolariak. Horrez gain, Ekonomia karrera egin nuen, asko ikasi dut.

Sukaldari bilakatu nintzen Euskal Herrira etorri nintzenean. Asko gustatu zitzaidan pintxoan atzean dagoen sormena. Beti izan naiz trebea eskulanetan eta sukaldea toki ona iruditu zitzaidan, beti dagoelako jateko zeozer eta ez zarelako hotzez hiltzen. Sukaldari titulua atera nuen orduan, eta denbora asko igaro nuen horretan lanean, harik eta erabaki nuen arte ateratzea langileekiko esplotazioz betetako mundu horretatik.

Bizitza “artistikoa”, nolabait esateko, duela 7-8 urte hasi zen. Nire lagun batek antzerki inprobisazio tailer bat egingo zuen, eta berarekin joatea proposatu zidan. Laudion izan zen tailerra. Kancaneo Teatro taldeko kideek dinamizatu zuten. Badira bi neska antzerki inprobisazioa egiten dutenak, ikuskizunak... polita iruditu zitzaidan, eta ondo moldatu nintzen.

Hainbat ikastaro egin nituen gero: clowna, antzerkia... Nire lagun batek (Haizea Malabaricia idazlea) idazketa ikastaroak eskaintzen ditu. Berak bultzatu ninduen paperean ere gauzak islatzera, eta hori ere asko gustatu zitzaidan.

Gero sortu zen Lentejas musika taldea. Hiru neskek abiatu zuten, horietako bi Aiaraldekoak. Ez zuten baxujolerik eta nik esan nien ni izan ahal nitzela.

Baina zuk bazenekien baxua jotzen?

Hori galdetu zidaten. Ez nekien, baina ikasi nuen eta taldean sartu nintzen. Orain apur bat geldirik dago proiektua, baina oso polita da.

Jorratu dudana azken esparrua da komediarena. Beti gustatu zait oholtza, giroa, publikoa, goian egoteak ematen dizun adrenalina...

Duela hiruzpalau urte, oso urte txarra bizi izan nuen. Ukitzen nuen gauza oro izorratzen zen. Kolpeak, kolpeak eta kolpeak baino ez. Une batean gelditu egin nintzen, *stand up* komedia ikuskizun batera joan nintzen. Haizea Malabaricia nire laguna zegoen bakarrizketa bat eskaintzen, eta irakasteko eskatu nion.

Banuen horrenbeste material buruan, ezen eztanda egiteko zorian nengon. Bizitzako zorigaitz guztiak komedia bilakatzeari ekin nion, eta horrek salbatu ninduen. Umorea eta gauzak ikusteko modua aldarazi zizkidan. Orain batzuetan pentsatzen dut gauza txarrak gertatu behar zaizkidalako, jendeari zer kontatu izateko.

Baina hori duela gutxi izan da, ez?

Bai, urtebete baino apur bat gehiago.

Ibilbide motz bezain oparoa, beraz.

Hori da. Despotorre jaialdian egin nuen nire lehen bakarrizketa, Bilboko taberna batean, eta publikoari asko gustatu zitzaion. Bost emakume umoregile geunden, eta gaueko izarra bezala atera nintzen bertatik.

Zorigaitzak komedia bilakatzeko dituzula diozu. Zer gai jorrazten dituzute zure bakarrizketetan?

Bizitzako nire esperientziak kontatzen ditut gehienbat, beti apur bat apainduta dagoen arren. Ez ditut sekretuak esango, jendeak bakarrizketan bertan ikusi ditzan.

Gai asko ditut. Lehena: *giria* naiz. Aurrekoan Vox-en eskuorri bat iritsi zitzaidan etxera, atzerritarren aurkakoa. Zergatik bidaltzen didate zabor hori? Ez dakite ni kanpoko naizela?

Hor duzu gai bat. Kanpoko naiz, txiroa naiz, nahiko zaharra (52 urte ditut dagoeneko)... Okerrera naiz: bollera, lodia... eta horietako bakoitza gai handi bat da hitz egiteko. Bada nire iritzia eta ikuspuntua plazaratzeko modu bat gure inguruan ditugun gai eta arazoengatik, eta horietaz guztietaz barre egiteko.

Aipatu dituzun gaiak modu serioan ere landu ahalko zenituzke. Zer tresna ematen dizkizu komediak beste genero batekin ematen ez dizkizunak?

Gai interesgarria da hori. Batzuetan gelditzen naiz pentsatzera duela bi urte gai horietako bakoitza iltze bat zela nire buruan, eta negargura sortzen zidatela. Orain topatu dut modua energia negatibo hori guztia deskargatzeko, zeo-

zer positiboa eta polita bilakatzeko. Batzuetan ez dut nire buruaz soilik hitz egiten. Banago prestatzen bakarrizketa bat Bibliako pertsonaiei buruz. Haurrentzako ipuinekin alderatu nahi ditut, argudiatzeko ea zergatik sinestu behar ditugun batzuk eta beste batzuk ez. Gai asko ditut [barreak].

Nola garatzen dituzue bakarrizketak? Inprobisazioa eginez sortzen dituzue ideiak edo paperean idatzi egiten dituzue lehenbizi?

Dena dago elkarri lotuta. Bakarrizketa bat egin nahi duzunean toki bat baino gehiagotan plazaratzeko, ez dira bi emanaldi berdina ateratzen. Ideia nire buruan dut gehienbat, garatzen dut eta askotan jarri behar dut paperean, ideia asko direlako eta zer kontatu erabaki behar duzulako.

Dena den, gero ez naiz oholtzara paperekin igotzen. Behin idatzitakoak irakurrita eta esan nahi dudana hausnartuta, asko laguntzen dit inprobisazioak. Gogoko dut inprobisatzea, eta ikusten dudanean publikoak bero dagoela eta gaia gogoko duela, ahal dudana puntura arte egiten dut tira. Nahikotxo inprobisatzen dut, bai.

Umoregileei egiten zaien galdera tipiko bat da komediaren

mugena, ea edozein gairi buruz egin daitekeen barre, eta umorea behetik gora edo goitik behera egiten den... Zuk mugarik jartzen diozue zure buruari zentzu horretan?

Bai. Gai sozialak jorrazten ditudanean nahiago dut nire esperientziatik abiatuta hitz egin. Modu horretan seguruago sentitzen naiz oholtzan, ez ditudalako mugak gaudituko, niri gertatu zaizkidan gauzez eta nire esperientziak hitz egiten dudalako. Badaude mugak. Badakizu emakume gutxi daudela oholtza gainean komedia egiten. Orain apur bat gehiago jarri da modan mikrofonoa, eta ateratzen dira emakume umoregileak, eta oso onak gainera. Baina egoera orokorrak berdina izaten jarraitzen du: mutilak edo, hobeto esanda, gizon zaharrak umore nahiko txarra egiten. Denok begiratu behar dugu gure ingurura, ez erortzeko ahotsik eman behar ez zaien gaientan. Ez ditut emakumeak iraintzen, ez ditut trans pertsonak iraintzen... saiatzen naiz ere gehiegizkoak diren biraoak ez erabiltzen, badaude hitz asko nire *bokabulariotik* kendu ditudanak... Gure inguruan badugu zabor asko jorrazteko modukoa, ez dugu zertan beste gaietan sartu behar. Ez dut *feminista* hitza gogoko, ez ditudalako gustuko *ista-n*

“Gai sozialak jorrazten ditudanean nahiago dut nire esperientzia pertsonaletik abiatuta hitz egin. Modu horretan seguruago sentitzen naiz oholtzan, ez ditudalako mugak gaudituko”

amaitzen diren berbak. Baina bai, banaiz feminista, gauza asko gertatu zaizkidalako emakume gisa, gauza asko debekatu dizkidalako bizitzan emakume izate hutsagatik... Gauzak hala, ondo ikusten dut emakume batek bere esperientzia propioak kontatzea oholtza gainean, kritika sozial moduan. Baina ez dut ondo ikusten gizon bat oholtzara igotzea emakumei gertatzen zaienari buruz hitz egiteko. Nik ezin dut gizon baten ize-nean hitz egin, eta alderantziz ere ez litzateke egin beharko.

Txistea nork kontatzen duen da gakoa, beraz.

Noski. Egiazkoa eta polita izan dadin errespetua izan behar dugu gure buruekiko eta gure inguruan dauden pertsonakiko. Duela gutxi emakume umoregile bat oholtzara igo zen edertasun zentro batean neska batekin gertatu zitzaiona kontatzeko. Neska hori txinatarraren, eta umoregilea ahozkerari txinatarraren imitatzen aritu zen. Emanalditik ateratzeko gogoak sortu zitzaizkidan. Nire lagun bat joan zen gero berarengana, ikusitakoak gustatu ez zitzaizkionak, eta umoregileari ez zion inolako graziarik egin. Orduz geroztik ez dut berari buruzko berri gehiagorik izan.



kirola

“Rubialesen musuak balio izan du azaleratzeko federazioan zegoen zabor guztia. Nik selekzioan jokatzeko nuenean horrela zen ere”

Kutxabank

MAITE MUGURUZA AITZINDARIA IZAN ZEN FUTBOLEAN 80KO HAMARKADAN ETA ESPAINIAKO SELEKZIOKO ATEZAINA IZATERA HELDU ZEN. BERE EREDUAK URDUÑAKO BESTE HAINBAT JOKALARIRENTZAT BALIOGARRIA IZAN ZEN. IRAGANARI ZEIN EGUNGO EGOERARI BEGIRA JARRI DA.



Testua eta argazkiak **Aitor Aspuru Saez**

Noiz hasi zinen jokatzeko?

Bizitza osoan jokatu dut, txikia nintzenetik. Lauzpabost urterekin auzoan jokatzeko nuen, Antiguan. Nire ahizpak ere gogoko zuen. Gero auzoko lagun guztiak joan ziren CD Orduñara eta nik esan nion aitari nik ere nahi nuela, baina ez zidan utzi.

Hortaz, hasi nintzen saskibaloian jokatzeko. Bedarbidan egon nintzen hainbat urtez. Harik eta unibertsitatean ikasi arte. Orduan antolatu nuen nesken arteko partida Filologia Ingelesa eta Hispanikoaren arteko klaseen artean, alegia. Joan nintzen futbol zelaia eskatzera eta harrituta geratu ziren.

Hala ere, jokatu genuen eta parte hartu zuen neska bat Txorierra Neskak taldeko kidea zen. Niregana etorri zen eta galdetu zidan ea talderen batean jokatzeko nuen. Aho bete hortz geratu nintzen eta esan nion: “Nesken taldeak daude???”

Aste horretan bertan joan nintzen eurekin entrenatzera, Sondikara eta 1983ko maiatzaren 1ean egin nuen debutua, Athletic Clubak liga irabazi zuen egunean, alegia.

Nolako izan zen aldaketa?

Niretzat izugarria. Auzoan egunero jokatzeko genituen partidak eta ona nintzen. Guraso batzuk haserretzen ziren semeekin irabazten nielako.

Gauzak horrela, entrenatzaileak futbol zelaira lehenengo aldiz atera ninduen bururik gabe aritu nintzen gora eta behera. Esan zidan zelaiko erdigunean hartu behar nuela lekua. Izan ere, egun bakarra entrenatu nuen eurekin.

Nire hasierako kokapena erdilaria zen. Fisikoki oso ondo nengoen, goian, behean, buruz ondo egiten nuen... Baina lesio larria izan nuen belaunean handik eta urte batzuetara.

Entrenamenduetan ezin nituen jokatu partidak, prestatzaileak agintzen zidan alde fisikoa lantzeko. Nik eskatu nion zerbait egiteko uztea, gutxienez, atezaina izatea. Ordutik aurrera postu horretan geratu nintzen. Saskibaloian jokatu nuenez, eskuekin ondo moldatzen nintzen, eta Espainiako Selekzioan ere erdilaria izan nintzen.

Espainiako Selekzioaren lehenengo partidaren egon zinen?

Ez lehenengoan baina bai lehenengoan artean. 1983an hasi nintzen futbol federatuan eta hurrengo urtean Espainiako Selekzioan nengoen. Urte erdiz jokatu eta gero deitu ninduen Selekzioak.

Erdilaria nintzen, defentsan laguntzen nuen, agintzen nuen, buruz ondo jokatzeko nuen eta gol asko ez nituen egiten, korerretan gehienez.

Atezain gisa heldu nintzen berritzaile izan nintzen, oinek ondo jokatzeko bainuen. Garai horretan atezainak atean geratzen ziren eta ni ateratzen nintzen jokatzera.

Nolako izan zen aldaketa hori? Zuretzat eta gainerako atezainentzat, ze taldeko zein Selekzioko jokalaritular bilakatu zinen.

Bizkaiko eta Espainiako Selekzioen atezain bilakatu nintzen. Besteentzat arraroa izan zen, baina ni oso lehia-korra nintzen. Garai horietan goizean goiz joaten nintzen unibertsitatean, arratsaldean ikasten nuen eta gero entrenatzera joaten nintzen, gaueko hamarrak arte, eta gero Sondikatik Urduñarako bidaiaria nuen. 23:10ean zen azken trena eta etxera 00:15 aldera heltzen nintzen. Hurrengo egunean 06:30ean esnatu behar nintzen. Oso sakrifkatua zen, baina izugarri gozatzen nuen. Hiru entrenamendu nituen astero, taldearekin eta Selekzioarekin, eta partidak, jakina.

Etxean jokatzeko bagenuen, ondo; bestela, kanpora jo behar genuen, bidaiatu, hotel batean lo egin... Partidaren ondoren ogitartekoa jan eta etxera berriro.

Noiz arte jokatu zenuen maila horretan?

1994an utzi nuen. Portugalen ari ginen Europako Txapelketa jokatzeko eta jokaldi batean eskularrua iltzatu zitzaidan zoruan eta ukondoa apurtu nuen. 30 urte nituen jadanik eta nire akademiak. Selekziara joaten nintzen bakoitzean dirua galtzen nuen, norbait kontratatu behar nuelako. Iruditu zitzaidan uzteko unea zela. Dieta oso urriak ordaintzen zizkiguten, baina jokatzeko nuen oso gogoko nuelako. Gaztea izango banintz, hor egongo nintzateke, Alexia eta besteekin, baina nire garaia ezberdina izan zen. Harro nago, bidea ireki dugulako.

Zeintzuk izan ziren zure lorpen handienak?

Sondikarekin ligak eta kopak ia beti irabazten genituen. Gero Estatu Espainiarreko txapelketan aritu ginen. Ez dut gogoratzen urtea, baina Bizkaian ez genuen areriorik. Gipuzkoarrekin lehiatzen ginenean, borrakatu behar ginen. Espainiako bigarrenak izan ginen behin Lurraldeko Selekzioen Txapelketan.

Espainiar Selekzioak bi aldiz jokatzeko zuten urtean, ez zen gaur egun bezala.

Futbolaren ostean, areto futbolean arituri zinen.

Bai, Urduñan sortu zuten areto futbol taldea eta entrenatzaileak proposatu zidan eurekin jokatzeko. Taldekide batzuk onak ziren eta beste batzuk ez horrenbeste. Entrenatzailearen filosofia zen guztiok jokatu behar genuela eta askotan gertatzen zitzaigun nekez lortzen genuela aurrean jartzea markagailuan —areto futboleko talde guztiak onak ziren teknikoki—, eta orduan sartzen zituen beste jokalaririk eta arerioek iraultzen zuten emaitza. Oso zaila zen niretzat, oso lehiakorra naizelako.

Gero heldu ziren Txiti eta Basualdo eta oso talde jatorria sortu genuen. Bizkaiko Txapelketako finala jokatu genuen. Irabazleak maila igotzen zuten. Finalera ailegatu zen beste taldea Sondikako taldekideez osatuta zegoen. Horiek guztiak ziren, gutxienez, nire adinekoak eta Urduñakoak hamabost edo hamasei urtekoak.

Gauzak horrela, hurbildu nintzen nire taldekide ohienarekin eta esan nien: "Aizue, txiki-txiki egingo zaituztegu. Atso batzuk zarete".

Urduñako gazteak izututa zeuden eta galdetzen zidaten

ea nola esan nien hori. Partidan kronometroa gelditzen zen baloia jokoan ez zegoen bakoitzean eta norgehiagoka izugarri luzatu zen. Horrela, irabazi genuen. Txapelketan garaitu ondoren, hurrengo mailara igo ginen, baina ez genuen egin. Izan ere, Txiti, Maitane Basualdo eta beste batzuek proba egin nahi zuten futbolean.

Hain zuzen, nik eraman nituen Lezamara, jendea ezagutzen nuelako. Txiti eta Maitane hartu zituzten eta Athletic B taldean aritu ziren hainbat urtez. Esango nuke Maitane Basualdo lehen taldean ere egon zela.

Pertsonalki, pena eman zidan beste maila batean ez genuelako jokatu, baina egia da litekeena zela sekulako jipoiak jaso izana, maila handia baitzegoen. Edonola ere, areto futbolean jokaturako denboraldi hori esperientzia atsegina izan zen.

Athleticeko emakumezkoen taldeagatik zure alabaren bataioa aldatu zenuen, ezta?

Bai. Igande batean bataiatu behar genuen Aulestin, baina apaizari esan nion ezin nuela eta aldatu genuen. Gezurren bat kontatu nion, ez nion esan Athletic Clubeko partidagatik zela. Azkenean, bataiatu ordez, zurigorritz jantzi eta San Mamesera eraman nuen ikusteko nola emakumezkoek irabazten zuten liga.

Bizi izandako guztiarekin, ikusten duzunean egungo egoera, zer pentsatzen duzu?

Plazer handia da ikustea garatu egin dela, profesionalizatu dela, inbidia osasuntsua sortzen dit hogen urte ez izateak. Dena emango nuke. Ikusi nuen Munduko Txa-

pelketako finala eta Cata Collen tokian jartzen nintzen. Berak ere ondo jokatzeko du hankekin, ni ere hor egon ahal nintzen. Nik uste guztiok egin dugula ekarpena eurak han egoteko.

Bestalde, musuarena dago. Alde batetik, ni poztzen naiz. Izan ere, horregatik izan ez balitz, inoiz ez litzateke azaleratuko federazioaren barruan zegoen zabor guztia, asko dela.

Ni nengonean kontrola izugarria zen. Azken berrogei urteetan hori aldatu ez denez, ez da horren txarra gertatutakoa. Hala ere, esan behar dut musuarena lotsagarria izan zela, baina okerragoa izan zen eskua hankartera eraman zuenean harmailean. Ez Rubiales ez bere inguruan zeuden guztiak ez ziren hor egon behar.

Ni Espainiako Selekzioaren lehen entrenatzailearekin egon nintzen, Teodoro Nieto zen. Oso zurruna zen, baina hurrengo, Nacho Pereda, hogeitaz egon da postuan. Berarekin egon ziren azkenengoek kontatzen zidaten gure garaian egiten zuten bera egiten zuela: emakumea degradatu. Topatzen bazuen bat apur bat makalagoa zena, txiki-txiki egiten zuten. Sinestezina zen. Eta bere ordezkioak politika bera zuten. Hori ez zuten gizonen egiten.

Hortaz, federazioko jendilajea kendu izana albiste ona da, ahaztu gabe aurretik hamabost jokalarik eskutitza sinatu zutela gauza bera eskatzen.

Horrelako jendea futboletik kanpo egon behar zen, ez dutelako ekarpenik egiten, kontrakoa. Jokalarien lana ez zen exijitzea hori aldatzea, eta hala ere txapelak izan ziren. Hori bai maila. Apartak dira.

**AINTZINAKO ANDRA MARIA IKASTETXEA** *Urduña***MATRIKULA ZABALIK**

LANBIDE HEZIKETA
Maiatzak 6 - 24

ATE IREKIAK: AURRETIKO
HITZORDUA ESKATU

• HAUR HEZKUNTZA (D EREDUA)


• LEHEN HEZKUNTZA

• DBH

• BATXILERGOA

• LH INFORMATIKAKO GOI
MAILAKO ZIKLOA

• ANITZEKO APLIKAZIOAK
GARATZEKO TEKNIKARIA



Informazioa: orientacion@colegiojosefinos.com • 945 384 830

kirola



“Laudioko Tenis Eskola hutsetik eraikia izan da eta amets hori Rafa Nadalen Akademian islatuta ikustea oso hunkigarria izan da”

JON ANDONI MARTINEZ ETA **ANDONI AGIRRETXE** LAUDIO TENIS KLUBEKO ENTRENATZAILEAK DIRA. BERRIKI MEXIKO BISITATU DUTE RAFA NADAL AKADEMIA ENTZUTETSUAREKIN, MUNDUAN BARRENA EGINGO DITUZTEN TENIS-BIDAIETAN LEHENENGOA.



Testua **Almar Gutierrez Bidarte**

Mexikon Tenis eskolak ematen zabilzate? Nola iritsi zarete bertara?

Rafa Nadal Akademiako Campusean parte hartu zuten entrenatzaile baten bidez sartu gara. Berak kontratazio arduradunari gomendatu gintuen eta elkarriketa bat izan genuen berarekin. Bertan, Akademian parte hartzeko baldintzak betetzen genituela ikusi zuten. Ni zuzenbide oposizioak prestatzen nabil, baina Andonik aukera eman zidan eta ezin nuen hori galdu. Berak nahi zuten esperientzia paregabe hau bion izatea, pista oso ondo konpontzen baikara elkarrekin. Laudioko Tenis Eskola hutsetik eraiki da eta amets hori Rafa Nadalen Akademian islatuta ikustea oso hunkigarria izan da, hor lan egitearen ardura eta pisua sentitu arren.

Zer zaudete egiten zehazki? Nolako da zuen eguneroko lana?

Munduko toki desberdinetan astelehenetik ostiraleraino ospatzen diren campusak dira. Egun bakoitzean, lana eta entrenamenduak moldatzen dira bola kategoria konkretu batera, hau da, sendotaduna, defentsa, eraso, bolea, *smasha*, sakea... Campusaren antolamendua horrelakoa da: emakume nagusiak etortzen dira goizez, nera-

beak arratsaldeko lehen orduetan, umeak arratsaldean eta gizon nagusiak ilusentian. Campus honetan zuzentasun teknikoak eta taktikoak lantzen ditugu pista, zesta ariketekin, eskua eta erraketa erabiliz (pilota puntua itxurak egiten), bai benetako puntu egoeretan, ikasleen artean. Guri dagokigunez, urtean, 30 astez Rafa Nadalen Akademiarekin bidaiatzea proposatu digute, munduko hainbat herrialdetik. Hala ere, erro sakonak ditugu hemen eta Laudio Tenis Klubeko neska-mutilak hazten eta gora egiten ikustea da premiarik garrantzitsua. Horregatik, oreka bilatuko dugu bi alderdi hauen artean, biak zaintzeko.

Tenis kultura dago Mexikon? Nolako da kirolaren egoera bertan?

Bai, mexikarren tenis zaletasuna ikusi dugu. Klub antzatzak daude eta guzti-guztiek dauzkate okupazio handiko pista asko. Padela hemen asmatu arren, ez dago tenisa beste finko eta hori oso bitxia da.

Mexikoko zein lekutan zaudete? Nolako da bertako egoera soziala?

San Pedron geratu gara: Erdialdeko Amerikako eta He-goamerikako lekurik esklusiboena da. Campusa bukatzerakoan, egonaldia aste bat luzatzeko aukera izan dugu herrialdea bisitatzeko, izugarrizko balio erantsia da. Egi-

ten genituen plan gehienak, zonaldeko leku berriak ezagutzeko, bertako bezeroekin egin ditugu. Beraiek jokatzen dute anfitrioi. Dena den, egun batzuetan gure kabuz joan gara Monterrey bisitatzera eta arrakala sozio-ekonomikoa jabetu gara, batez ere, azpiegiturretan, bizitzaren kalitatean... Berdintasun-eza agerian zegoen, erdi-maila soziala ez balego bezala. Une oro bizi izan dugu desberdintasun hori, maila sozial altua eta baxuaren artekoa eta kasu gehienetan, ez dago ezta hiru etxaldiko toki beraien artean ere. Bidaiaren bigarren zatia Mexico DFn egin dugu eta desberdintasun sozialak berdina izan dira.

Tenisa maite duen norbaitentzako esperientzia ikeragarria izan behar du zuenak. Zer irakaspen espero duzu ekartzea bueltan?

Bai, mundu osoan zehar bidaiatzea benetan maite duzuna egiten, pribilegio bat da eta hala sentiarazten zaitu. Esperientzia oso aberasgarria izan da, munduko toki desberdinetako entrenatzaileekin ondo konpondu gara eta istorio bitxi eta paregabeak bizi izan ditugu. Gainera, iritzi oso positiboa izan dugu Campusean antolatzailearen inguruan eta esan digu kontuan izango gaituela hurrengo hilabeteko Kitoko eta Bogotako Campusetarako. Ekuador eta Kolonbia zain ditugu eta batek daki zeintzuk izango diren hurrengo lekuak.

babestutako edukia



KOKORIKOREN UDAKO ESKAINTZA 2024



Basoan EUSKARAZ jolasean

• ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera,
09:00etatik 15:30etara.

* Jantoki zerbitzua egongo da.



• TOKIA

Olarte auzoa (Laudio).
Udalekua BASO BATEAN garatuko dugu.
Lurra ondoren utzi eta jasoko dira haurrak.

• ADINA

2014-2021 urte bitartean jaiotako haurrak.

• TXANDAK

1. Ekainaren 24etik 28ra.
2. Uztailaren 8tik 12ra.
3. Uztailaren 22tik 26ra.
4. Uztailaren 29tik abuztuaren 2ra.

• PREZIOAK

Aste bat: 4 aste:
- Bazkideak 75€ - Bazkideak 270€
- Ez bazkideak 85€ - Ez bazkideak 310€

* Jantoki zerbitzua prezioaren barruan sartzen da.

Faktorian IKERTZAILE bihurtu

• ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera,
09:30etatik 13:30etara.

• TOKIA

Faktoria (Laudio).

• DATAK

Abuztuaren 5etik 9ra.

• ADINA

2014-2021 urte bitartean jaiotako haurrak.

• PREZIOA

- Bazkideak 50€
- Ez bazkideak 55€



Sorginkerien UDALEKU itxia

• DATAK

Irailaren 2tik 5era.

• TOKIA

Garaion Sorgingunea (Ozaeta, Araba).
* Haurrak autobusez jaso eta
buelatuko dira.

• ADINA

2012-2018 urte bitartean
jaiotako haurrak.

• PREZIOA

- Bazkideak 180€
- Ez bazkideak 200€



4 egunez SORGINKERI ezberdinak
egiten pasatuko ditugu egunak eta gauak
ere! Sorginek egin bezala, naturan
dauden elementuekin ukenduak egingo
ditugu. Eta, sorginek aspaldian egin
bezala, naturan jolastu eta
dantzatuko dugu.

IZEN-EMATEA

maiatzaren 2tik aurrera

- www.labur.eus/faktoriaudalekuak2024 bidez
- Telefonoz: 693 855 312 (Aritz) 09:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

* Leku mugatuak daude. Ez-bazkideen kasuan oradinketa datoren arabera gordeko dira plazak. Bazkideen kasuan izen-emate ordenaren arabera.

* Izena emateko azken eguna txanda hasi baino aste bete lehenago itxiko da.



kirola

FUTBOLA

Denboraldi amaiera borobila egin dute Amurrio Clubeko gazteek



Zuia menderatu ondoren, txapelkunak izan dira Amurrioko gazteak. **Chris Gomez**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Maiatzaren lehen jokatu zen Amurrio Club oso harro dago gazte taldeak egindako lanagatik. Oho-rezko mailan aritzeko eskubidea matematikoki eskuratu ondoren, Lehen Mailako liga irabaztea lortu zuten iragan larunbateko garaipenari esker. Maiatzaren 4an Basarri jokatu zen Amurrio Clubak Zuia. Euren aurkaria bigarren sailkatu denez, liga eskuratu zuten amurriorek. Nuñezek bi gol egin zituen eta bana, aldiz, Lopezek, Hodeiek eta Enaitzek.

Proiektua taldearen atzean

Klubeko zuzendaritzak azpimarratu du taldearen arrakastaren gakoa izan dela proiektua dagoela atzean. Hain zuzen, egungo jokalarien %75ek kadete taldea osatzen zuten iaz. Futbolari multzoa

ez ezik, entrenatzaileak ere mantendu dituzte. Gainera, nabarmendu beharra dago Iker Mansilla eta Antton Vivanco, biak, prestaketaren arduradunak direla, hau da, ez dago lehen eta bigarren entrenatzailearik. Miguel Rios da talde teknikoko beste kidea. Aurreko denboralditik elkarrekin lan egiten duten gazteek eta prestatzailerik futbol joko oso fisikoa ezarri dute; goian egiten dute presioa, eta pilota lapurtu bezain pronto hegaletatik egiten dituzte trantsizio azkarrak. Erdilariak kalitate handikoak direnez, gola sartzeko aukerak bilatzen dituzte. Atzean, klubak gogoratu du atezain oso onak dituela. Hala azaldu du presidentek: "Nekez heltzen dira aurkariak abaguneak sortzera eta askotan topo egiten dute atezainekin". Horrez gain, zentralak handiak dira eta kornernetan zein faltetan golak egiten dituzte, eta

hegaletako defentsak asko igotzen dira. "Fisikoki oso sasoiak daude, motorrak bezala", aipatu du Amurrio Clubeko buruak. Amurrio Clubak uste du gazte taldeak maila oso handia duela, eta jokatu dituzten lagunarteko partidetan erakutsi dutela hori, kategoria nagusiko taldeei arazo ugari sortuta. Horregatik, euren asmoa da Euskal Ligarako igoeraren bila joatea hurrengo denboraldian. Jokalari gutxi utziko dute taldea gazte kategoria gaindituko dutelako, hiruk baino ez. Dena den, beste klub batzuen esku hartzearen arriskua existitzen da. "Espero dugu jokalaria guztiek jarraitzea hurrengo denboraldian, oso talde ona osatu dutelako eta harreman bikaina dutelako, baina talde potenteak etortzen badira euren bila, ez da gure erabakia izango. Gu beti saiatzen gara jokalariek zaintzen eta horregatik uste dugu geratuko direla".

MENDIKO TRAIL-A

Aiaramendi Korrikalariak Espainiako Kilometro Bertikaleko Txapelketan

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aiaramendi Korrikalariak Taldeak parte hartze bikaina izan zuen Espainiako Kilometro Bertikaleko Txapelketan, onena izan baitzen gizonezkoen kategorian. Benidormetik gertu dagoen Finestraten izan zen lasterketa eta erronka aparta proposatu zuten antolatzaileek.

Izan ere, 3,6 kilometro eskasetan, lasterkariak 1.020 metro-

ko desnibelari aurre egin behar izan zioten Puig Campana mendian. Aiaramendi Korrikalariak, Grupo Alpino de Benalmadena eta CDE Todovertical izan ziren lehen hiru talde sailkatuak. 1.000 euroko saria jaso zuen Aritz Unamuno Garayk, Javier Omaetxebarria Goitiak, Jon Betolaza Belokik, Hodei Samaniego Bousok, Unai Fernandez Maguregik eta Arkaitz Ereño Maturanak osatutako taldeak.

TXIRRINDULARITZA

Ion Egiak bigarren postua eskuratu du Euskadiko Txapelketan



San Jose Jaen barruan antolatu zuten Euskadiko Txapelketa. **Chris Gomez**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Maiatzaren lehen jokatu zen Amurrioko San Jose auzunean Euskadiko Txirrindularitza Txapelketa kadeteen kategorian. Eskualdeko hainbat kirolariak parte hartu zuten Aiala Txirrindularitza Elkartearen eskutik eta horietako bat, Ion Egi, bigarren izan zen.

Dena den, erronka ez zen samu-

rra izan audioarrarentzat. Izan ere, aurreko egunetan gaixorik egon zen eta ez zen sasoiak heldu probara. Hori bai, etxean izanik, bere zaleen aurrean, dena eman zuten gazteak.

Gauzak hala, Egiak horrela deskribatu du esperientzia: "Lasterketa oso azkarra izan da eta ihesaldiak oso zainduta egon dira, Zaroabeko pasabide guztietan asko estutzen zen eta katarroagatik dezentzera sufrizten nuen, azken pausoa ia ezin ginen aurrean zegoen taldearekin pasa, baina azkenean gure aukera esprintean izan zen".

Egiak helburuari eutsi zion eta esprintean sartu zen hamai-ka txirrindulariekin batera. Soilik Eñaut Bilbako zeharkatu zuen helmuga bera baino lehen.

Laudioarrari zapore gazi-gozoa geratu zitzaion, baina, aldi berean, pozik zegoen emaitzarekin, aintzat hartuta ez zela guztiz sasoiak egon: "Azken egun haue- tan igarotako guztia ondoren, proba balorazio ona eman digu, eta oso pozik gaude erakutsi dugun errendimenduari".

elkarlan asesores



www.elkarlanasesoria.com

2023
Errenta-aitorpena.

Zure aitorpena esku onetan

30 urte baino gehiago enpresei eta partikularrei aholkularitza fiskala ematen

Lamuza, 12 · LAUDIO
Tel. 94 672 74 28

Foru Kalea, 2 · AMURRIO
Tel. 945 39 33 51

Torre de Ugao, 12. UGAO
Tel. 94 603 91 65

herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Maiatzaren 22an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



Marina

Zorionak Mari! Gora gure maratoilaria! Ondo pasa

The Txaros



Haizea

Zorionak Otaola! Gora glutenik gabeko garagardoa

Senza Gluten



**BIDALI
ZURE
ZORION
AGURRA!**

Denborapasak

ERRAZA

			9	2				8
				8	5	1		
3			1	6		2	9	
5		6		9			3	4
	4					5		
	3	9			2		1	
			4			9		
		1	2				6	
	5	4		1	8		7	2

OSO ZAILA

1								7
	2		4					6
		3					5	
	9			8	2			
				9				8
			6				4	
		5					1	
	6		8					2
7						3		

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

Zozketa



**Orozko Rock musika
jaialdiko material sorta
zozkatuko du Aiaraldea
Komunikabideak**

Orozko Rock jaialdiko material sortaren zozketa

Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** Maiatzak 17, 15:00etan.

IRAKURKETA GUNEA

GORPUTZ GUZTIAK DIRA EDERRAK

Idazlea: Beth Cox

Ilustratzailea: Samantha Meredith

Itzultzailea: Maialen Arzallus Antia

Argitaletxea: Ttartalo

Gorputza baduzu munduan leku bat duzu, bizirik zaude.

Gorputz guztiak ezberdinak dira, zure gorputza zuk bakarrik duzu. Hausnarketarako bidea ematen duen liburua da.



DESBERDINEN KLUBA


Idazlea: Cati Baur

Ilustratzailea: Christophe Bouchard

Itzultzailea: Miren Agur Meabe

Argitaletxea: Ttartalo

Komiki errealista da aurkezten duguna. Nerabezaroan norbere tokia ez aurkitzeaz eta lugunen arteko harreminen inguruan hitz egiten digu komikiak. Lau lagunez osatutako taldea da, eskolan baztertuak daudenak. Bidegabekeriaren aurka borrokatuko dute.



PATATA PUNKIAK



AZALPENA:

Uda dator eta laster landatzeko unea helduko da.

Hurrekin aukera polita izan daiteke eskulan hau egitea. Lurraren indarrak jabetzeaz gainera, zaintza eta konpromisoa bezalako balioak landu daitezke beraiekin.

Lurrak egunero gainean egoteak eskatzen du, zaindua sentitu behar du haziak ernaltu eta fruitua eman dezan.

Horregatik eskulan honek bizitzaren faseak ezagutzen lagundu gaitzake.

MATERIALAK:

- Edalontzi/pote bat
- Edalontzia dekoratzeko: ponpoiak, zinta, gometak, errotulkiak...
- Media bat
- Lurra
- Belar haziak
- Begi itsaskorak
- Itsasgarria
- Haria

ZELAN EGIN BAT?

1. Lehenengo edalontzia edo potea dekoratuko dugu. Bakoitzak nahi duen moduan dekoratu dezake. Gure panpinaren gorputza izango da.
2. Media hartuko dugu eta lurrez beteko dugu. Lehenengo lur apur bat sartuko dugu. Gero haziak botako ditugu eta azkenik lur gehiago.
3. Haziak sartu aurretik uretatik pasa, ondo busti.
4. Media lurrez ondo bete, edalontziaren zuloa baino pixka bat handiagoa izan behar du.. Edalontziaren gainean jartzean edalontzi barrura es sartzeko.
5. Behin lur nahiko botata, borobil forma eman eta korapilo batekin media itxi.
6. Mediaren soberakina beheko partea dela jakinda, mediatik lur apur bat hartu eta sudurra sortu. Sudurra hari zati batekin lotu.
7. Edalontziaren gainean utzi, mediaren soberakina edalontzi barruan sartuz. Dagokion tokian bi begi itsatsi eta gure panpina eginda egongo litzateke.
8. ZAINTEKO: Edalontzian ura dagoela ziurtatu, beti egon behar du urak. Modu horretan media bustita egongo da eta belarra jaioko da.



KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Beste istorio bat

Herri txiki batean bizi den familia baten istorioa ekartzen dizuet. Denbora luze itxaron ostean, ama ahurdun geratu eta haur jaio berria etorri zen mundura. Jaiotzean goitik behera begiratu ondoren, Aitor deitza erabaki zuten, buelta askorik eman gabe.

Familia nahiko aurrerakoia zen, interesa pizten zioten momentuko gaiak, martxoak 8an kalera aldarriekin ateratzekoak ziren. Aitor poz-pozik bizi zen familia horretan.

Bere lehenengo gabonak heldu ziren, baita bere lehenengo urtebetza ere, bigarrenak ere pasa ziren eta trenek, traktoreek zein kotxeek bete zuten Aitorren etxea. Pozik jolasten zuen Aitorrek bere jostailuekin etxeko alde batetik bestera joanez.

Aitorrek azkar bete zituen 5 urteak, hitz egiten hasi zen eta baita bere lagunekin sozializatzen ere. Egun euritsu batean, zer egin ez dakizun egun horietako batean, Aitorrekin batera arropa erostera joan ziren.

Betiko dendara eta dendako betiko zonaldera joan ziren arropa bila. Aitorrek ordea atzera begiratzen zuen uneoro. "Praka hau gustatzen al zaizu?" galdetzen zioten eta berak azkar begiratu eta "ez, hori ez" erantzuten zuen. Bere begirada atzeko beste zonaldean zegoen, adarbakar bat zuen jertse more argi batean zuen jarria. Jertseak Aitor liluratua zuen, adarbakar eder bat zuen erdian margotua, mahuketan lore koloretuak zituen eta goitik behera bi bolanterata zituen jertseari mugimendua ematen ziotenak.

Aitorrek barruan gorderik zuen indar guztia hartu, baina ahots txikiarekin bota zuen: "Nik hori nahi dut". Gurasoek elkarri begiratu zioten eta urduri jarri ziren. Berrito elkarri begiratu, umea begiratu eta denbora irabazi nahian, erantzuna bazekiten arren, umeari galdetu zioten: "Zein? Horko jertse more hori?" Haurrak gurasoen erreakzioa ikusita eta nerbioak sentituta, erdi lotsatuta erantzun zuen, bere ahotsik xumeenarekin "Bai hori". Gurasoek berrito elkarri begiratu eta keinuka hasi ziren, beraien artean zer egin ez zekitelako, erosiko diogu? Ez diogu erosiko? Erosteakotan, eskolara eramaten utziko diogu?

Azkenean erostea erabaki zuten, umeak egun bakarrean jarri zuen jertsea, egun horretatik aurrera ez zuen jarri nahi izan.

Gehiagotan jarri nahi ez izatearen arrazoiak milaka izan daitezke, eta zuri, irakurle, uzten dizut hausnarketa hori egiten. Umea aske jaiotzen da eta etxean ezaugarritzen ditugu kontzeptuak, etxetik mundura jendarteratu eta mundutik berriz etxera. Ziklo horrekin apurtzeko hitzeta-tik ekintzetara pasa beharra dago. Baten bat prest?

Sudokua eskura



Bete itzazu sudoku honen hutsuneak ESKURA hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (E, S, K, U, R eta A). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

A				S	K
		K			
K				U	
	A		K		
		R	E		
E	K		S		U

Pareak

Hatz-aztarnak gizaki bakoitzaren ezaugarri behinenak omen dira: nor bereak ditu eta ez omen daude bi berdin. Baina hemen hatz-aztarna guztiak bi aldiz ageri dira, bat izan ezik. Zein da?

Hamahiru!




Hauek bai zortea!

Seina beso, aizue! Eta den-dena eskura, ezta? Aurki itzazu bi Shiva hauen artean dauden 13 aldeak.

Handienetik txikienera

Ordenatu eskuok handienetik txikienera. Eman handienari 1 zenbakia, eta txikienerari 9.

Zomorroak Labirintoan



Hiru xomorrotxo hauetatik bat labirintotik aterako da, beste bat etxera iritsiko da eta hirugarrena harrapatuta geldituko da labirintoan. Ea identifikatzen dituzun.


SOLUZIOAK

Kontra

Aiaraldetik mundura



Juke Schweizer / Mohamed Tantawi



Javi Nuñez

JATORRIA
LAUDIO

BIZILEKUA
HOLANDA

BIDAIAREN XEDEA

HOLANDARA JOAN ZEN BIZITZERA ETA BERTAN PLAZARATU DU BERE LEHEN LANA: ARCTIC GREEN

HOLANDA



DESKRIBAPENA

Herbehereetako mendebaldeko eskualdea da Holanda, eta bertan daude herrialdeko hiru hiri nagusiak: Amsterdam, Haga eta Rotterdam. Hain zuzen ere, Rotterdam da Europako porturik handiena hartzen duen hiria. Holanda toponimoa sarritan erabiltzen da Herbehere osoak izendatzeko.

AZALERA

41.543 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

17,6 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK

Nederlandera da hizkuntza ofiziala.

Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publicitate@aiaraldea.eus
Tifnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilloia, Laudio, Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILA BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzzen Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde Alberto Gutierrez, Eunat Molinuevo, Ekhiñe Etxepeteleku

“Holandan zein Laudion konposatutako kantuak bildu ditut diskoan”

Laudion igarozenuengaztaroa, baina Holandan amaitu duzu bizitzen. Nolatan?

Nik beti izan nuen Erasmus egiteko gogo. Ingeniaritza Kimikoa ikasi nuen Leioako Kanpusean eta ezin izan nuen kanpora joan ikastera. Gogo hori geratu zitzaidan. Horregatik, Masterra egin nuenean atzerrira joateko aukerak bilatzen hasi nintzen. Eusko Jaurlaritzaren Global Training bekarrekin egin nuen topo. Beka horren bidez, sei hilabetetako praktikak finantzatzen zituzten atzerrian. Lortu nuen hori Masterrera egokitzea. Hitzarmena zuten hemengo ikerketa enpresa batekin, Eindhoven hirian zegoena.

Praktikak egiten egon nintzen eta gustatu zitzaidan. Gauzak hala, curriculumak bidaltzeari ekin nion praktikak amaitu baino lehen, ez nuelako ezer galtzerik. Enpresa batetik deitu ninduten ikertzaile lanpostu baterako. Urtebeteko kontratua eskaini zi-

daten, eta probatzea erabaki nuen. Lagun berriak ezagutu nituen, musika jotzeko jende berria... eta lanean kontratu finkoa eskaini zidaten. Pentsatu nuen beti izango nuela aukera itzultzeko, eta sinatzea erabaki nuen. Baina kontua da hemen jarraitzen dudala [barreak].

Laudion zeundenean hainbat musika taldetan parte hartu zenuen. Nola eman diozu jarraipena zure sorkuntza ibilbideari Holandan?

Ni bibolina jotzen hasi nintzen, eta gitarra gero. Baina Laudiora bizitzera joan nintzenean hasi nintzen jendearekin jotzen. Bertan sortu nuen nire lehen taldea, Aitor Banderas eta Xabi Aldaiturriagarekin. Trapagarango kide batzuekin ere aritu nintzen beste proiektu batean, Hijos del seto izenekoa, musika zeltiarrekoa. Hori izan zen nire proiekturik garrantzitsua. Horrez gain, banituen beste

proiektu batzuk. Asko jotzen nuen Sabin Guarestirekin batera. Bilbora joaten ginen kalean jotzera. Goiatz Duttorekin ere jotzen nuen, modu informalean.

Holandara etorri nintzenean zerotik hasi nintzen, ez nuen inor ezagutzen. Baina Eindhoven bada go elkarrekin bat, *Music with strangers* ('Musika ezezagunekin') izenekoa. Hainbat jarduera egiten ziren bertan, eta ostegunetan jendeak instrumentuak eramaten zituen, elkarrekin jotzeko. Hori izan zen Holandan musikarekin izan nuen lehen harremana.

Urte hasieran plazaratu zenuen zure bakarkako lehen diskoa. Bakarririk egin duzu sorkuntza osoa?

Bai, nire kabuz. Disko bategitearen idea aspalditik nuen buruan, baina inoiz ez naiz jarri seriooki horretara, orain arte. Taldean jotzean bertsioak egitera mugatzen ginen, eta beti izan dut zer bait propio eta berria egiteko grina, inor

bertsionatu gabe, nire musika egitekoa. Diskoan plazaratu ditudan abestietako batzuen zirriborroak Laudion nengoen garaikoak dira, duela hamar urtekoak. Beste abesti batzuk berriagoak dira, duela bi urte ingurukoak.

Oso garai ezberdinetako konposizioak barne bildu dituzu diskoan, baina abesti guztiek dute kutsuzeltiarra. Zer nabarmendu zenuke lan horretatik?

Lehenbizi, nabarmenduko nuke entzuleak topatuko duena badela artistaren irizpide hutsen arabera osatutako lana. Hau da, ez dut inolako irizpide komertzialik ezarri, kantuak bost minutu baino gutxiagokoak izatea kasu. Eginiko guztia nire gustuen arabera izan da erabat. Marketin kapitalistatik libre garatu dut diskoa, nahi izan dudana forma emanez. Hori oso zaila da topatzea gaur egun, oso zehaztuta dagoelako nolakoak izan behar diren gauzak.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



araba álava
foru aldundia diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA